

Filosofia 37 ipuinetan

ERMANN
BENCIVENGA



itzulpena: Josu Zabaleta



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

ERMANNNO BENCIVENGA

filosofia 37 ipuinetan

Itzulpena: Josu Zabaleta

“La Filosofia in quarantadue favole” liburutik

Azala: Oihana

Itzulpenaren eskaintza: Beñat, Amaia, Irati bilobei, aspertzen ez badira irakur dezaten, eta, disimulu pixka batez, haien gurasoei eta amonari ere bai, haurra izatea zer den orain dik ere ahaztu gabe edukiko dutelakoan, denentzat baitago zer ikasia.

Nahi adina denbora zegoenean, gauzak zergatik gal detzen genuen. Eta, horretarako astia bagenuenez, erantzuten ahalegintzen ginen. Baina galdera gehiago eta gehiago ekartzen zizkigun erantzunak; horregatik, jende asko aspertu egin zen bilatu eta bilatu. Orain, bukatu da denbora. Hitzak geratu dira. Baina baliteke esatekorik ezer ez izatea ere.

Ilargia

Garai batean ilargirik ez zegoen. Baziren, hala ere, ilargia ikusten zutenak, gauez batez ere, ia gauero: bi hankako giza kiak. Baina baziren hiru hankako gizakiak ere, eta haiek ez zu ten ikusten ilargirik, ez gauez ez egunez. Horrela bada, bazen gaixotasun bitxi bat bi hankako gizakiei ikusmena nahastu eta gauez, ia gauero, zeruan ilargia ikusi ordez, gauza zuri bat ikusarazten ziena. Ezin sendatuzko gaixotasuna zen, baina ez zen arazo handi handia ere, ez baizuen beste sintomarik era giten, eta ez zuen laburtzen bizitza. Nolanahi ere, bi hankako gizakiez ez zen fidatu behar, ia gauero ikusten baitzuten existi tzen ez zen gauza zuri bitxi hura: arrastoan eduki behar ziren, ez zitzaien garrantzi handiko erabakirik hartzen utzi behar, eta goiz bidali behar ziren ohera. Bestelako guztian normalak ziren erabat; are gehiago, zentzuzko jendea ziren, ganoraz eta probetxu handiz lan egiten zutelako.

Hala, beste gaixotasun bat azaldu zen behin, baina hark hiru hankako gizakiei erasotzen zien. Hirugarren hanka inu rritu egiten zitzaien hasieran; ondoren puntu gorriak azaltzen zitzaizkien, eta astebeteren buruan beste mundura bidaltzen zintuen. Gaixotasun horrek ere ez zuen sendabiderik eta oso bizkor zabaltzen zen. Handik pixka baterako hiru hankako gizakirik ez zen geratzen, eta beste inor gabe moldatzen ikasi behar izan zuten bi hankakoek.

Denbora luzea joan da harrezkero; hiru hankako gizakiez inor ez da gogoratzen. Bi hankakoek hartzen dituzte erabaki garrantzitsu guztiak, eta norbait kexuka hasten bada, lotara bidaltzen dute. Eta orain badago ilargia, gauez batez ere, ia gauero.

Lauarenarazoa

Behin lau zenbakia aspertu egin zen beti bikoitia izanez. Zenbaki bakoitiak askoz ere alaiagoak eta pipertsuagoak zirela iruditzen zitzaion. Eta nekatu egin zen bere itxuraz ere, aulki itxura zuela iruditzen zitzaion. Begira zazpiari –esaten zuen bere baitarako–, hura bai luzea eta dotorea, eta baita hirua ere, biribila eta irribarretsua; ni, berriz, koskaz eta erpinez be tea, inolako nortasunik gabea. Eta bi gehi bi izatez ere aspertu egin zen; denek dakite hori, eta gauza jakin bat adierazi nahi denean, horixe esaten da: “Zenbat da bi gehi bi?”. Zenbaki luze, zail bat izatea amesten zuen; beti ahazten dituzun eta batuketa egin nahi baduzu papera eta arkatza behar dituzun zenbaki horietako bat nahi zuen izan.

Ez zen egiteko erraza, zeren kontua ez baitzen lauak beste zenbaki bat bihurtu nahi zuela, nik al dakit zein? bosta, adibi dez, edo 1864372. Lehengo berbera izan nahi zuen, zen ber bera izaten jarraitu, baina bosta bezalakoa ere izan nahi zuen, bakoitia, edo 1864372 bezalakoa, luzea eta zaila. Badirudi, ordea, ezinezkoa dela lau bakoitia izatea, eta ezinezkoa dela luzea eta zaila izatea ere, bestela ezin lau izan. Beste zerbait izango litzateke, eta lauak ez zuen beste zerbait izan nahi: le hendik zena izan nahi zuen, baina gauza batzuetan desberdi na, horra.

Eta horrelako problemarik ebazten lauak ez zekien. Ger ta zitekeen problema horrek soluziorik ez izatea ere, gainera.

Baina soluziorik baldin bazuen, Matematikari Handiak jakin go zuen, seguru. Horrela bada, Matematikari Handiarengana jo zuen lauak eta arazoa azaldu zion. Matematikari Handiak irribarre egin zuen. Hark ere izana zuen bere garaian beste era batekoa izateko gogoia: ez beste bat, jakina, zena izanez jarraitu nahi zuelako, baina Dantzari Handiaren, edo Tenisla ri Handiaren edo Erdiko Aurrelari Handiaren antz pixka bat izatea, hori bai, gustatuko zitzaiokeen. Horregatik, berak ere izana zuen orain lauak zuen arazo berbera, eta bazekien no la konpondu. Lurrean esertzeko esan zion (zertarako eskaini aulkia lau bati?), eta hitz egiten hasi zitzaion.

–Begira, lau –esan zion–, ez dago zertan desberdina iza nik, bakoitia edo luzea eta zaila, adibidez. Ez dago desber dina izan beharrik, dagoeneko bazarelako desberdina, nahiz eta zeu ohartu ez. Iruditzen zaizu bi gehi bi –denek dakiten hori– egiten duen aulkitxo ergel bat besterik ez zarela, baina badituzu beste inork ez dituen gauzak ere, oso gauza bereziak, hain zuzen.

Esate baterako, bi gehi bi zara, bai, baina baita bi bider bi ere, eta baita (hau zailxeagoa da) bi ber bi ere. Eta guztiz gauza berezia da hori: hiru gehi hiru, adibidez, ez da bi bider hiru, eta are gutxiago hiru ber hiru. Eta begira beste hau ere: lau bider lau, gehi hiru bider hiru, berdin bost bider bost da; horrek esan nahi du hiruak, lauak eta bostak elkarren segidako pitagoratar zenbakizko familia bat osatzen dutela, eta horrelako familiarik hori besterik ez da. Zazpiak, hainbes te miresten duzun zenbaki horrek, adibidez, ez du horrelako familiarik. Edo...

Baina laua nahiko nahastuta zegoen ordurako, eta aski ze la esan zion Matematikari Handiari. Pitagoratar zenbakien kontu hura ez zuen ulertzen, eta hobeto aztertu nahi zuen, garrantzizkoa iruditzen zitzaioneta. Joan zen eta horretan ari da oraindik ere. Pitagoratar zenbakiena ulertu zuen, eta beste gauza asko ere bai, eta egunero aurkitzen du berezia egiten duen gauza berriren bat.

Usainak

Garai batean gizakiek bazekiten usainak zein lekutan zeu den sentitzen, sentitzen zituzten gainerako gauza guztiak be zala. Badakizue nola gertatzen den hotsekin, dastarekin eta gainerako guztiekin: trenaren zarata trena dagoen lekuan entzuten da, ez belarrietan; eta marrubiaren dasta mingaine an sentitzen da, hantxe dagoelako marrubia. Eguzkia zeruan ikusten da, ez begietan; eta alfonbraren biguntasuna hanka pean sentitzen dut, hankak alfombra gainean ditudalako. Ba, horra, gizakiek arrosa zegoen lekuan sentitzen zuten arrosa ren usaina: eskuan baldin bazeukaten, gertuan sentitzen zu ten; hamar pausotara eta ezker aldera baldin bazegoen, hamar pausotara eta ezker aldera sentitzen zuten.

Baina horrek ezin zuen irau. Arrosa edo marrubiak ba ziren, hainbestean, ezin hobeto; baina kiratsa darien gauzak baldin baziren, orduan arazo larriak izaten ziren. Gauza bat ikusi nahi ez badut, aski dut beste aldera begiratzea; eta nor baitek zarata eginez traba egiten badit, eska diezaioket isiltze ko. Aranak gustatzen ez bazaizkit, ez jan eta aski, eta lapikoak erre egiten badu, ez ukitu. Usain txarrarekin, ordea, ez du funtzionatzen beste alde batera begiratzeak edo eskuak pa trikan sartuta edukitzeak edo mesedez usain ona botatzeko eskatzeak. Horregatik, bada, kiratsa darien hainbeste gauza egonda, gizakiak ez ziren pozik bizi, kiratsez inguratuta.

Horrexegatik, hain zuzen, gizaki bati loteria suertatuta, hi ru desira betetzeko aukera eman ziotenean, ez zuen zalantza rik izan. Harrezkero sudurrean sentitzen da usaina, urrutitik badator ere. Usain txar bat gogaikarria gertatzen bazaigu, aski da zapitxo bat koloniatan busti eta sudurrera eramatea: kiratsa kanpoan geratzen da, eta guk pozik eta alai jarrai dezakegu.

Arrazoiak

Dortokak itsasotik atera ziren eta haztamuka jo zuten au rrera uharrien artean. Harriak igarota, hondardi zabal bat ze goen, haitzuloraino. Hilabete batzuk lehenago arrautzak jarri zituzten haitzuloaren berdinberdina zen; oraingo honetan, ordea, ez zegoen inolako arrautzarik han. Bazirudien oraingo honetan ez zegoela hara zergatik joanik.

Geldiro zihoazen, ehunka. Balantzaka zebiltzan, beren hankatxoan gainean, beren ezkutu marroiak ezin garraiatuta, aurrera finkofinko begira. Ez zuten gidaririk, ez buruzagirik; zein bere gisara zihoazen, baina harmonia eta adostasun one an. Aldian behin gelditu eta arnasa hartzen zuten, eta berriro abiatzen ziren, denak batera, elkarri seinalerik edo keinurik egin gabe, elkarri begi iskinatik ere begiratu gabe, baina jo muga galdu gabe, hala ere: dagoeneko aurrera zihoan goizeko bero itsugarrian sumatzen zen itzaltxo hura, uste zutena baino pikoagoa zirudien aldapa baren buruan espero zuten fresko tasun gunetxo hura, hain zuzen. Inguruan, isiltasuna besterik ez, erresakatxo arin, bare samar batek aldian behin urrutian etena, hain urruti ere non ez baitzuen merezi arreta jartzerik; hegan zebilen antxetaren baten garrasiak are nabarmenagoa egiten zuen isiltasun hura.

Iritsi ziren azkenean haitzuloraino, eta haren sarreran pi latu ziren. Ez zuten barrura sartu nahi; biratu eta itsasorantz eta zerumugarantz begira geratu ziren, orduak eta orduak. Elkarren kontra estuestututa, gorputz bat bakarra ziruditen, ezkutu erraldoi geldi bat, ilunabarra zetorreanean.

Zergatik mugitu ziren horrela? Zergatik egiten du batek edozer gauza? Egun batean haizeak bestelako usain bat dakar kizulako, edo argia ortzadar iheskor batean zatikatzen delako; eta orduan badakizu abiatu egin behar duzula, irten egin be har duzula uretatik, uharriak igaro eta hondarretan gora igo behar duzula.

Behin batean banintzen ni, baina horrek ez zuen funtzio natzen. Kanean nindoala norbait topatu eta hizketan hasten baginen, adibidez, ederki egoten ginen eta ondo moldatzen ginen, baina une batean beti galdetzen zidaten “Nor zara?” eta nik erantzuten nien “Ni naiz”, baina ez zuen funtziona tzen. Egia zen, ni bainaiz ni, horixe naiz gehiena, eta hori bai no gauza hoberik ez zait bururatzen nor naizen esateko. Baina ez zuen funtzionatzen, aizu, ez zuela funtzionatzen:

besteak deseroso begiraten zidan, eta albait bizkorren urruntzen zen. Edo norbaiti telefonoz deitu eta "Ni naiz" esaten nion, eta egia zen; hori baino modu hoberik, zehatzagorik eta osoagorik ez zegoen nor nintzen esateko; baina bestea madarikazioka eta builaka hasten zitzaidan, edo barrez, eta telefonoa eskegitzen zidan.

Etsi beharra izan nuen, beraz. Lehenik eta behin, izen bat hartu nuen niretzat, eta orain, norbaitek nor naizen galdetzen badit, "Beñat" erantzuten diot. Ez da erantzunik dotoreena, badakit: Beñat nor den galdetuko balidate, ni naizela eran tzungo nieke, seguru asko. Baina, ez dakit zergatik, Beñat nai zela esanda hobeto funtzionatzen du. Hain zuzen ere, inork ez dit galdetzen Beñat nor den: balekitez bezala jokatzeko dute denek.

Beñat nor den galdetu ordez, non eta noiz jaio nintzen, non bizi naizen, aita eta ama nor ditudan galdetzen didate.

Erantzuten diet eta pozik geratzen dira. Halako lekutan eta halako egunetan jaio eta beste halakotan bizi den urliaren edo berendiaren semea eta halakoaren edo beste halakoaren aita naizela uste dutelako geratuko dira pozik, beharbada. Eta ez da egia, jakina: halako edo bestelako lekuak edo urliak edo berendiak ez dute ezer berezirik. Beste nonbait, beste fami lia batean jaioa banintz ere, neu izango nintzateke, naizen berbera: naizen hauxe naiz naizen gehiena, naizen gauzarik egiazkoen eta zehatzena. Hori, ordea, badirudi inori ez zaio la interesatzen: beste hori interesatzen zaie eta, hori jakinda, gustura geratzen dira.

Behin batean banintzen ni, baina ez zuen funtzionatzen. Orain Beñat dago, Xen jaioa eta Yn bizi dena, eta abar. Eta ni ez naiz horrelako ezer, baina gauzak primeran doaz.

Ulertu beharrekoak

Amaiak ulertu beharreko guztiak ulertzen ditu. Ulertu beharrekoak lapiko handi batean, babarrunak prestatzeko era biltzen diren lapiko horietako batean, daude gordeta, esaten zuten pertsona nagusiek: lapiko hori, ordea, ezin babarrunak prestatzeko erabili, ulertu beharreko guztiak hantxe gordetzea bururatu zitzaiolako norbaiti. Horregatik, bada, lapiko ori so toan gordeta daukate pertsona nagusiek, beste mila trasteren artean, eta, ulertu beharrekoak kanpora atera eta lau haizetara barreiatu ez daitezten, estali eta estalkia zinta itsaskorrez lotu zioten, eta lisatzeko plantxa bat, burdinazko palanka bat eta ingude bat jarri zizkieten gainean; gauza astunak, barrukoa seguru egon zedin.

Baina horrek ez zuen atzeratu Amaia, ez zuen desanima tu, eta lapikoaren bila hasi zen. Etxepeko satora jaistea izan zen gehien kostatu zitzaiona: satora jaisteko eskailera estua eta iluna da oso, eta behebehean iskina batean biratu egin behar da, gainera; jaisten ari zaren bitartean, iskina haren atzean gauza beldurgarriren batek egon behar duela iruditzen zaizu, ipuinetan aipatzen diren munstro horietakoren batek edo; ge zurrezko ipuinetan esaten dira horrelakoak, jakina, jendea na hasteko eta beldurtzeko propio idazten diren horietan, alegia. Gehixeago edo gutxixeago kostata, hortzak estutu eta begiak itxiz, eskailera behearaino iritsi zen Amaia, azkenik; eta hori lortu zuenean, berriro probatu nahi izan zuen segituan, eta behin eta berriro errepikatu zuen, harik eta kantuan eta eskai leramailak binaka jaitsiz behearaino iristeko gai izan zen arte. Eskaileraren oztopo hori gainditurik, handik aurrerakoa ezin errazagoa izan zen: sotoko atea ez zegoen itxita, lapikoa begi en bistan zegoen, eta haren gainean jarritako gauza astunak jaso beharrik ere ez. Lapikoa okertu eta berez erori ziren albo batera, burrundara eginez. Zinta itsaskorra askatu eta estalkia kentzea geratzen zen.

Behin baino gehiagotan kendu eta jarri zuen berriro estalkia. Lehenengoan harrituta geratu zen, lapiko barruan ezer ikusi ez zuelako. Ordu txarra izatea bazitekeela pentsatu zuen: gauzak arratsean ulertzen direla beharbada, edo gauez, edo goizean goiz, dagoeneko argi bai, baina eguzkia artean atera gabe dagoenean. Horrela bada, berriro itzuli zen gauez, eta baita goizean goiz ere, inor ez esnatzeko hankatxoak arin mu gituz, isililik; baina lapikoa beti hutsik. Amaiak desilusia hartu zuen, eta kezkatu ere egin zen pixka bat. “Ez ote zen gertatuko, bada – pentsatzen zuen–, lapikoa zabaldu dudanean, ulertu beharreko guztiak handik atera eta lau

haizetara barreiatu eta orain inork ezin aurkitzea?”. “Baina ez, ez da po sible —erantzuten zion bere buruari—, kontuz jokatu dut. Ezer ez dut ikusi handik irteten. Eta, ezer ikusi ez baldin badut, zer zegoen ulertu beharrekorik?”.

Ulertu du, azkenean; Amaiak ulertu du. Ulertu du oker zeudela pertsona nagusiak: ulertu beharrekoak ez direla la piko batean gordetzen, ez direla sotoan ezkututzen, ulertu beharrekoak ezin daitezkeela kanpotik etorri, ezin dizkigula beste batek eman. Ulertu du, barruan daramaguna beti eta ongi ulertzen bada, atera ere atera dezakegula kanpora eta ha la etxeak eta zubiak eta autoak eta traktoreak egin ditzakegula; baina barruan daramaguna ulertzen ez badugu, kanpoan ez dagoela zer ulerturik.

Eta hori ulertu duenean, Amaiak zinta itsaskorrez itxi du berriro lapikoa, eta, nekez bada ere, lisatzeko plantxa, burdi nazko palanka eta ingudea gainean jarri dizkio. Eta harrez kero denbora asko ematen du bere gelan, barruan daramana ulertzen; gero handik ateratzen da eta, ulertu duenaz baliatuz, mundua aldatzen du.

Erokeriak

Behin batean gauzak matxinatu egin ziren. Ibaiak atzeraka joaten hasi ziren, ura izoztu egiten zen eguzkitan eta harriak airean hegan ibiltzen ziren alaialai. Gizakiek ez zekiten zer egin. Pixka batez, erotuta zeudela iruditu zitzairen, baina gero, bakoitzari gertatzen zitzaiona besteei esatera ausartu zirenean, denek gauzak berdin ikusten zituztela ohartu ziren: mundua zen, beraz, erotuta zebilena.

Gizakiek ordezkari batzuk aukeratu eta gauzekin hitz egi tera bidali zituzten. Hankarik ez zuen mahai baten inguru an eseri ziren, hutsik zegoen baso batetik ur zurrutada bana edan, eta kexuka hasi ziren.

–Ezin dugu horrela jarraitu –esan zuen gizonik zaharren eta jakintsuenak–, zuen jokaera hau izadiaren legeen kontra doa, eta ez bururik ez hankarik ez du. Haluzinazioak baizik ez zaretela aldarrikatzera behartuko gaituzue, horrela jarraitzen baduzue.

–Hauxe ederra –erantzun zion borratu ordezi idatzi egiten zuen borragoma batek–, nor zarete zuek izadiaren legeak zein diren esateko? Izadiaren zati bat izango zarete, gehienez ere, eta beste zatia gu gara, zuen eskubide berberekin. Zergatik jokatu behar dugu guk zuei komeni zaizuen moduan, buru dunak eta zentzudunak garelara esateko?

–Banengoen bai, ni, horrelako zerbait azalduko zela –eran tzun zion gizon gazteago eta suharrago batek–; gerra hasi du zue, eta gerra bada gerra izango duzue, eta halaxe erantzungo dizuegu, ez hitzez, armaz baizik.

–Bai, noski; baina zer armaz? –gehitu zuen fusil batek–. Nork esaten dizue zuei armak zuen alde daudela? –eta gauzak argi uzteko, katua estutu eta tiro bat egin zuen.

–Egon; gauden pixka batean –eten zuen jakintsuak–, ez dugu berotu behar. Guk ez zaituztegu ezertara behartu. Men detan egon gara zuei begira, eta nola jokatzen zenuten ikusi eta ikasi dugu: izadiaren legeak behaketa horien laburpen bat, horixe dira.

–Horixe da, bada, kontua –bota zuen lurrari lotuta zegoen lanpara batek–, mendetan egon zarete zer egiten genuen be gira, zuen ondorioak atera dituzue, eta orain ez diguzue begi

ratzen ere. Aspertu gaituzue, dagoeneko ez gaituzue ikusi ere egiten, eta zuek jarritako jardunbideak betetzen ez baditugu, existitu ere ez garela existitzen esatera ausartzen zarete. Baina, existitu, badakizue existitzen garela, traba egin dezakegulako.

Gizakiak ergelduta zeuden.

–Zer egin orain? –galdetu zuen begi samurreko txikitxo batek–. Horrela jarraitzen baduzue, ezin biziko gara.

–Ez dugu nahi zuek hiltzerik –erantzun zion bote egiten ez zuen pilota batek, denen izenean–. Arreta pixka bat jartzea, besterik ez dizuegu eskatzen. Beti harrapa zaitzakegu usteka bean eta, hori ahazten baduzue, berriro egingo dugu.

Hitz horiekin bukatu zen bilera: leihoak zabaldu ziren eta etxeko suak piztu ziren. Lehengora itzuli zen dena, baina han dik aurrera arreta gehixeago jartzen zuten gizakiek gauzetara ko, eta beldur pixka bat ere hartu zieten.

Mila koloretako txoria

Beste txori batek aise ulertu izango zukeen. Zapelatzak ulertu izango zukeen: ziztu batean jaitsi, kolpetik harrapatu eta penarik eta mirarik gabe eramango zukeen handik. Muti koak ezin zuen ulertu, ordea. Harentzat mila koloretako izaki bat zen, mundua txilioz bete, eguzkia bezain gora hegan egin eta murgilean jaitsi, haizearekin eta hodeiekin, euriarekin eta tximistarekin jolas egin beharko zukeen izaki bigun, lumatsu, samur eta atsegin bat zen. Baina ez zen mugitzen: balkoi zabal hartako zoko batean kuzkurtuta zegoen, aurrera finko begira, geldirik eta bare.

Beste txori bat berehala ohartuko zatekeen haren kolore ek ez zutela distirarik, haren lumak ez zirela bigunak lehen bezala, haren gorputza ez zela arina eta bizkorra dagoeneko, haren lumak dagoeneko ez zirela haizeari eusteko gai. Baina mutikoak ordu arte ez zuen inoiz ikusi hainbeste koloretako izaki bat, inoiz ez hain gertutik izaki hegodun bat. Txoritxoak bakarrik eta triste zegoela iruditu zitzaion, eta horrexegatik ez zuela kantatzen eta hegan egiten, horregatik ez zuela mundua txioz betetzen eta ez zuela eguzkia bezain gora hegan egiten. Lagun egiten saiatu zen. Eskuan hartu zuen, abesti bat abestu zion, bere gelara eraman eta han zituen altxorrak erakutsi zizkion. Haziak bilatu eta ura ekarri zion bazkari on bat eskaini zezeko. Baina txoritxoak ez zuen ezer jan, ez zuen ezer edan.

Haurtxoari nekatuta egongo zela iruditu zitzaion. Leiho arasan pausatu zuen; handik eguzkia eta hodeiak ikusten zituen, eta kaiolatxo bat egiten hasi zitzaion. Mutiko trebea zen: bazituen zur arinezko puska batzuk, eta torlojuak, iltzeak eta ziriak ere bai. Mailua ere bazuen. Orduak eman zituen lanean, ganoraz eta fundamentuz.

Kaiola bukatu zuenerako eguzkia beheratua zen eta txoritxoak begiak itxita zeuzkan. Harrezkero, zertan huts egin zuen pentsatzen ari da oraindik ere mutikoa.

Bi eskolak

Bi eskola mota daude munduan. Batean egiazko gauzak irakasten dituzte: nork eraiki zuen egiaz Erroma, zein den egi az munduko mendirik garaiena, nor bizi den egiaz urpean. Bestean, berriz, egia ez direnak irakasten dituzte: Erroma Re mok edo Numa Pompiliok eraiki zuela, urpean dragoiak eta sirenak bizi direla.

Alde ederra dago eskola batetik bestera. Egia bat izaten da, ez bi edo hiru: Erroma Romulok eraiki zuela egia bada, ezin izan beste inork sortua. Horregatik, era horretako eskoletara joaten diren hurrek gauza berberak ikasten dituzte denek, eta behin ikasi dituztenean, ikasitakoak errepikatzen igaro tzen dute denbora guztia: “Erroma Romulok eraiki zuen”, “Urpean arrainak bizi dira”, eta abar, eta abar. Urteko edozein egunetan horrelako eskola batean sartzen bazarete, gauza bera errepikatuko dute haur guztiek, Erroma Romulok eraiki zue la, esate baterako. Batek huts egin eta Erroma beste norbaitek eraiki zuela esaten badu, asto hutsa dela esango diote. Eskola horietan egia irakasten baita, eta egia bat da, ez bi edo hiru.

Eta, denborarekin, horrelako eskoletara joaten diren hau rrak ere berdinak bihurtzen dira luzarorako: mantal txuria, ile horia edo beltza, begiak horiurdinak dituzte eta basa frui tuzko izozkiak jaten dituzte denek. Handiak egiten direnean, auto handi handiak nahi izaten dituzte, barruan telefonoa, hozkailua eta arropa garbitzeko makina duten autoak.

Bestelako eskolak era askotakoak dira. Egiazko gauza ba koitzeko egia ez direnak ezin konta ahala direnez, era ho netako eskola bakoitzak gauza desberdinak irakasten dizkie hurrei, eta horregatik, horrelako eskola bakoitzean beste es koletan ikasten ez diren gauzak ikasten dituzte ikasleek. Ba tek ikasten du Erroma Remok eraiki zuela, beste batek Numa Ponpiliok eraiki zuela, beste batek osaba Haritzek eraiki zu ela, beste zereginik ez baitu izaten. Horrelako eskola batean sartuz gero, sekulako nahasteborrastea topatuko duzu; haur bakoitzak bere modukoak kontatuko ditu, eta inork ezin du esan bestea oker dagoenik, denak baitaude oker eta hasieratik bertatik dakite hori. Eta haurrak ere era askotakoak dira: ba tek begiak berdeak ditu, besteak zuriak; batek sudurra aurre an du, besteak atzean; batek mantala du, besteak eskafandra. Haur horiek handitzen direnean, barruan hozkailua duen au toa nahi du batek, besteak barruan autoa duen hozkailua; bat trajea eta gorbata jantzita ibiliko da, bestea trajerik eta gorba tarik gabe.

Horietatik egiaz eskola zein den, hori da orain arazoa.

Gizakiak eta hitzak

Behin batean erabat muturturik esnatu ziren gizakiak, eta ez zuten ezertxo ere esan nahi. Ez dut esan nahi hitz egiten ez zutenik, uler dezagun ongi: lehen adina edo gehiago hitz egiten zuten, batzuetan ozen bai ozen hitz egiten zuten eta beste batzuetan xuxurla hutsa bihurtzen zuten ahotsa. Zuzen ahoskatzen zituzten hitzak, bakoitzak irakatsi zioten hizkun tzaren arabera, eta gramatikak inolako eragozpenik izango ez zukeen moduan josten zituzten esaldiak eta ahapaldiak. Baina hitz haiekin, esaldi haiekin eta ahapaldi haiekin ez zuten ezer esan nahi, horra.

Pentsa, esate baterako, hankan edo bizkarrean hazkura du zuenean. Hazka egiten duzue, baina, hazka eginagatik, horrekin ez duzue adierazi nahi hazkura duzuenik. Hazka egiten duzue eta kito, hazkura duzuelako. Baliteke norbait ohartzea hazkura duzuela, baina ez hori adierazi nahi izan diozuelako. Hazka egiten ikusi zaituzte eta, bere gisa arrazoituz, zergatik hazka egiten duzuen ohartu da. Ba, begira, horixe bera ger tatzten zen gizonen eta hitzen artean. Batek hotza zuela eta “Hotzak nago” esaten zuen, baina ez zuen esan nahi hotzak zegoenik. Esan egiten zuen, eta kito, hotzak zegoelako. Gerta zitekeen ondoan norbait egotea eta hotzak zegoela ohartzea, baina ez hotzak zegoela esan nahi izan ziolako. Edo norbaitek gorroto zion beste bati, edo maite zuen, eta “Gorroto dizut” edo “Maite zaitut” esaten zuen, baina ez besteari ezer adierazi nahi ziolako edo ezer esan nahi zuelako: hazka egiten den be zala, hortzek karraska egiten duten edo negar egiten den edo barre egiten den bezalaxe esaten zuen. Automatikoki. Eta bes teak ulertu egiten zuen askotan, malkoak eta barrea ulertzen diren bezalaxe. Hitz gutxitan esateko, inork ez zuen ezer esan nahi, baina lehen bezalatsu ulertzen zuten elkar.

Egun batean gauzak horrela funtzionatzen hasi ziren. Bali teke geroago gauzak aldatu izana. Edo ez.

Sokatxo

Txikia nintzenean, arazo handi bat nuen. Aldian behin buruko mina edo eztarriko mina izaten nuen; horrek ez du ezer berezirik: ez zen gauza gustagarria, baina denei gertatzen zaie noiz edo noiz eta, esan ohi den bezala, askoren mina... Baina banuen min bat batere arrunta ez zena; areago, min as ko nituen. Adibidez, galtzek mina egiten zidaten amak arropa garbitzeko makinan sartu eta han barruan izaten den haize gailu moduko hark batera eta bestera erabiltzen zituenean. Ateak min egiten zidan, haizeak danbateko batez ixten baldin bazuen; katuak min egiten zidan, norbaitek isatsetik tira egi ten bazion, eta aulkiak ere min egiten zidan amaren osaba Pe dro gainean esertzen bazen, tona bat pisatzen baitu eta aulkia ia mila puska egiteko egoten baita.

Halako batean amak medikuarengana eraman behar nin duela erabaki zuen. Gizon garai bat zen, zurizuria; betaurre koak lodilodiak zituen; hain lodiak, non begiak ia ikusi ere ez baitzitzaizkion egiten. Esertzeko eta etzateko agindu zidan, aurretik eta atzetik ukitu ninduen, lehendik zituenak baino are betaurreko lodiago batzuek begiratu zidan; azkenean aho tsa garbitu eta hitz egiten hasi zen. Mundu honetara etor tzen garenean, gainerako gauza guztietatik bereizi egiten ga ra –esan zuen–. Gauza batzuek gureak izaten jarraitzen dute, buruak eta eztarriak, adibidez, eta beste gauza batzuek –gauza gehienek– ez. Katua, galtzak, aulkia, adibidez, ez dira gureak; edo, hobeto esanda, gureak dira guk eduki ditzakegun zen tzuan; beste norbaitek nahi baldin baditu, eskatu egin behar dizkigu; baina ez gure zati bat diren zentzuan, burua eta ez tarria bezala. Horrela gertatzen da denengan edo, hobeto, ia denengan. Oraindik ez dakigun arrazoiren batengatik, beste gauzetatik bereizten ez den haur bat jaiotzen da aldian behin. Ni horietakoa nintzen: sokatxo ikusezin baina oso sendo ba tek lotzen ninduen katuarekin eta aulkiarekin, eta baita jateko pastarekin eta ilargiarekin ere. Besteak bezalakoa izateko, eba ki beharra zegoen sokatxo hori.

Esan eta egin: medikuak ikusiezinezko tresna sendo bat hartu zuen (nolakoa zen ez dakit, ez nuen ikusi eta), eta so katxoa ebaki zuen. Harrezkero, ederki. Edo gaizki ez, zehaz tu beharko nuke beharbada. Amak galtzak arropa garbitzeko makinan sartzen dituenen ez didate minik egiten, katuak ere ez, norbaitek isatsetik tira egiten dionean, eta ateak, haizeak danbateko batez ixten duenean, eta, oro har, ez naiz kexatzen buruko mina edo eztarriko mina baizik ez

dudalako. Baina bada gustatzen ez zaidan gauza bat. Lehen, galtzak arropa gar bitzeko makinatik atera eta amak eguzkitan zabaltzen zitu enean, neguan katilu bete txokolate egina edan eta barruan sentitzen duzun bero hori bezalakoxea sentitzen nuen gorputz osoan. Gero amak mendafinurrinez gozatuta edukitzen zuen armairu freskoan sartzen zituen, eta baloiaren atzetik korrika ibili ondoren kanpoan bazkaldu eta zuhaizpe batean belarre tan etzatea bezalaxe izaten zen orduan. Katua aulki gainean, ilea larru leun, belusatuaren kontra kukubilkatzen zenekoa ez esateagatik. Edo amak liburu baten orriak pasatzean, ohartu gabe, orrialdeak ferekatzen zituenekoa. Laztan haiek, soka txoa eten zenez gero, ez ditut sentitzen.

Orri-marka

Gure etxean bada orrimarka bat. Ez, ez da: zen, garai ba tean bazen. Eta, zentzu batean, baliteke oraindik ere izatea. Bueno, badakit hau mordoilo hutsa dela, eta hobe izango dut hasierahasieratik azaltzea dena.

Gure etxean bazen larru marroizko mihitxo bat, mehe mehea, urrekoloreko harizko greka polit bat zuena. Aitak, eta amak eta haurrek, irakurtzen ari ziren liburua utzi baino lehen, orrien artean sartzen zuten, noraino iritsi ziren gogo ratzeko. Horren ordezt bazuten orriaren ertza tolestea, baina hori eginez gero hondatu egiten dira liburuak, eta gure etxe an zaletasun handia dago liburuetarako. Bazuten beste edozer gauza erabiltzea horretarako, nik al dakit zer, gutun-zorro za har bat, arkatz bat, elurretako lore bat. Baina larrumihi hura xe gustatzen zitzaien denei, larruusain gozoa zuelako behar bada, edo urreharizko zerrenda hark gauza asko gogorarazten zituelako, izarrek gauez, ilargirik ez denean eta argia itzalita dagoenean, marrazten dituzten dituzten zerrendek bezala. Esan beharra dago denak aritzen zirela haren bila eta elkarri kendu eta ezkutatu egiten zutela, eta “Orrimarka ikusi du zu?”, “Orrimarka galdu dut!”, “Nork hartu dit orrimarka?” besterik ez zela entzuten etxean.

Horrelaxe deitzen baikenion larrumihi hari: orrimarka. Egun batean larrumihia haserretu egin zen.

—Ez naiz kexatuko honen bizimodu aspergarria dudala ko —bota zuen denen aurrean—, ez naiz kexatuko nire gaztaro guztia liburu baten orrialdeen artean lizuntzen eta erretzen ari naizelako, baina begirune pixka bat eskatzen dizuet, besterik ez! Zer izen da hori, “orrimarka”? Horretarako baizik etorri ez banintz bezala mundu honetara, zerbait markatzera, ni ez naizen beste zerbait markatzera! Neure nortasunik ez banu bezala, beste modu askotan ere erabili ezin izan baninduzue bezala! Larru marroizko mihi mehe eta ongi dotorea naiz ni, urreharizko zerrenda eder honekin. Zaldi urduri bat gida tzeko hede gisa ere balioko nuke (zaldi txikitxikia beharko luke, badakit), edo modako galtzak lotzeko gerrikoa izateko ere bai (miniatuazko galtzak, ados), eta artelan gisa erakusgai jartzeko ere ez nintzateke txarra izango. Eta, horren ordezt, hemen naukazue, arkatz batetik edo gutunzorro batetik edo elurlore batetik ezerk bereizten ez duen “ez dakit zeren mar ka” izanez. Erabil nazazue nahi duzueenerako, baina emadazue izen itxurosoago bat behintzat: “mihia”, nahi baduzue, itxura hori duteta.

Aita eta ama eta haurrak harritu samar geratu ziren pu rrustada hura entzunda, baina arrazioa zuela aitortu behar izan zioten. Ez zuten nahita egiten, baina iraingarria zen beren jokaera hura. Handik aurrera “orrimarka” izen hura de bekatuta geratu zen gure etxean.

Gure etxean larru marroizko mihitxo bat dago orain, me hemehea, urrekoloreko harizko greka polit batekin. Aitak eta amak eta hurrek irakurtzen ari diren liburuan orrialdeak adierazteko erabiltzen dute, baina haren bila ari direnean edo hartaz dihardutenean ez dituzte lehengo gauzak esaten. Alde rantziz: “Orrimihia ikusi duzu?”, “Orrimihia galdu dut!”, esaten da orain.

Horrela bada, gure etxean ez dago orrimarkarik. Lehen bazen, garai batean. Eta, zentzu batean, baliteke oraindik ere izatea. Begira, mordoilo bat atera zait, baina orain badakizue nola gertatu zen eta zeuek erabaki.

Galdu zen neskatxoa

Marina neskatxoa galdu egin zen. Unetxo bat lehenago hantxe zegoen, ingurura begira, patxadan eta soseguz; begi etan distira izaten zuen pertsona nagusien berriketak, beti berari buruz ziharduten, zein polita eta txintxoa zen eta me rienda osorik nola jaten esaten zuten solas luze haiek entzu ten zituen bitartean. Ondoren gauzaren bat gertatu zen; inoiz ez da jakin zer. Planetak eguzkiaren aurrean lerrokatu ziren, edo kopetan itzal hotz, ilun bat erori zitzaion; edo pertsona nagusietako bati ahotsa eten eta nota faltsu, behartu, gezu rrezko bat atera zitzaion; edo neskatxoaren begiek beste begi batzuk topatu eta haiek deseroso beste norabait biratu ziren; nork jakin. Kontua da desagertu egin zela. Haren lekuan bes te bat dago orain, haren antzekoa, baina kopia bat baizik ez dena, hura ezagutu ez zuena baizik engaina ezin dezakeena: honen begiek ez dute distirarik, ez dute inolako konfidantza rik adierazten. Beste Marina honek badaki denei lotsarik ga be begiratzen, badaki haientzat merienda prestatzen, badaki itzaletan eta hotzetan bizitzen; baina, beti gaua noiz iritsiko balego bezala, ezerk ardura ez balio bezala, egin beharreko gauzak eta egiten direnak baina inork egingo ez lituzkeenak, baina azkenean lotara joateko bizkor egin beharko liratekee nak balira bezala.

Harrezkero askori iruditu zaie oraindik ere Marina neska txoa ikusten zutela. Badira egun batzuk airea epela eta urrintsua izaten dena; badira une batzuk batek etsi, bere beldurrak uxatu eta istorio atseginak kontatzen dituen, kontatzeko go zamenagatik, besterik gabe; badira aldian behin disko baten ildoetatik ateratzen diren hots atseginak, orrialde batean era tzen diren sentimenduz betetako hitzak; eta askok esan izan dute horrelakoren bat gertatzen denean, orduan berriro itzul tzen dela Marina neskatxoa bere lekura, haren begiek distira izaten dutela berriro, eta berak jan nahi izaten duela berriro merienda, areago, norbaitek presta diezaiola nahi izaten du ela, ogian gurina zabaldu eta eskain diezaiola keinu amultsu batez.

Baina unetxo bat izaten da, hain zuzen; aski izaten da es kaintzen ari zaion eskuak ikaratxo bat egitea, istorioa konta tzen ari zaion ahotsak zalantzatxo bat izatea, ahotsa zertxobait jasotzea, neguantzik txikiena izatea, eta neskatxoa desagertu egiten da. Galdu den lekuan ez dago ezer, ez dago inor, baina kalte egiten duen ezer eta inor ere ez dago.

Konplota

Behin, urrutiko mundu batean, sekulako konplot bat an tolatu zuten makinek. Oso plan erraza zen: denbora guztian arazorik gabe, matxurarik gabe, errukirik gabe funtzionatzea zen kontua. Arropa garbitzeko makinek garbitu egingo zuten, kalkulagailuek kalkulatu, hozkailuek hoztu, eta sukaldeek ja naria prestatu. Lan handia zen eta arreta handia eskatzen zu en, baina merezi zuen –pentsatu zuten makinek.

Aldi batez, gizon zein emakume, denak poztu ziren. Ez zen gertatzen futbolpartida baten emanaldian telebista hon datzea, trafikorik handiena zenean semaforoa itzaltzea, argia joandakoan kandelak ez piztea. Alde guztietan ikusten ziren esker oneko begiradak, hitz amultsuak makinei buruz; nor baitek ospakizun publiko bat egitea ere proposatu zuen, hitzaldiekin eta adoreagatiko dominabanaketarekin. Baina ez zen ospakizunik izan, bitarte horretan gauzak okertzen hasi zirelako.

Elektrizistak, iturginak, mekanikariak, erlojugileak goize an goiz esnatzen ziren (iratzargailuak bere orduan jotzen bai tzuen beti), bizarra mozten zuten (bizarra mozteko makinak behin ere ez baitzuen huts egiten), gosari gozo bat jaten zuten (ogitxigorgailuaren eta irabiagailuaren laguntza seguruare kin) eta nork deituko zain geratzen ziren. Baina deirik ez zen iristen. Ez zen telefonoak funtzionatzen ez zuelako: entzungailua jasotzea aski zen, beti entzuten zen seinalea, argi, ozen, garbi. Baina inork ez zuen deitu beharrik: makinak ez ziren hondatzen. Beraz, elektrizistak, iturginak, mekanikariak eta erlojugileak telebista aurrean eseri (hura ere ez baitzen inoiz hondatzen) eta hari begira egoten ziren, ikusteko guztiak iku siz, publizitatea ere barne.

Publizitatea, nolana ere, geroz eta gutxiago ematen zu ten. Zertarako egin auto berri baten publizitatea, zaharra oraindik ere martxan badabil, edo bizarra kentzeko makina batena edo ogitxigorgailuarena, hutsik egin gabe funtziona tzen dutenak badituzu, edo koloretako telebista batena, etxe koa ongi badabilkizu? Horrela bada, auto, irabiagailu eta txigorgailu-fabrikak bata bestearen ondoren itxiz zihoazen bezala, filma filmaren ondoren ematen zuten telebistan, eta jendeak segidan ikus zitzakeen, jendearen beharrik beste ezer tan ez zegoeneta.

Baziren denbora hura guztia mendigailurretara igotzen edo itsasoa igerian igarotzen emateko asmoa zutenak, baina ez ziren asko: mendira funikularrean ere igo zitezke, eta itsa soa igarotzeko baziren itsasontzi handi eta txikiak, hegazkinak edo itsaspekoak.

Labur esateko, beraz, konplotak arrakasta osoa izan zuen: gizon eta emakumeen beharrik ez zegoen, alferrik zeuden, eta makinek hartu zuten aginpidea. Eta orduan makinek atsedean hartzea erabaki zuten. Eta harrezkero urrutiko mundu hartan ez da zaratarik entzuten.

Ondarea

Koldok ondare handi bat zeukan irabazita. Ospe onezko ondarea. Txikitandik hasi zen horretan: gainerako haurrek habailaz txoritan edo amonari lepotik behera igelak sartzen ziharduten bitartean, Koldok olerkiak buruz ikasten zituen edo mahaia prestatzen zuen. Sardexka ezkerrean, labana eta koilarea eskuinean, zapia ongi tolestuta platerean. Geroago motelasterketak, komunean zigarroak erretzea, eskolako lanak ondokoari kopiatzea, goizak eskolan eman ordez piper egitea etorri ziren, besteentzat. Beretzat grekerazko aditzpa radigmak, Poloniako eta Espainiako erregetzarako gerrak eta opor osasuntsuak izan ziren, mendialdean betiere: pasieraren bat, zuhaitz baten itzala eta liburu on bat. Eta diplomak eta dominak, ikasteko dirulaguntzak eta bizkarreko adeitsuak etorri ziren. Irakasleek emanda, jakina.

Eskola bukatu ondoren ere, ordea, Koldok ez zion utzi ospe ona irabazteari. Haren hitz guztiak ziren jakintzaz beteak eta ongi pentsatuak, haren egintza guztiak zuhurtziak agin duak, haren aukera guztiak guztiz zentzuzkoak. Inoiz edo behin burutik pasatzen zitzaion bere ondaretik pixka bat gastatu beharko zukeela, ez zuela merezi gordetzerik, zerbaitetarako erabili ezean. Baina erdipurdiko jendea eta ideal hutsalak bai zik ez zituen ikusten inguruan: hainbeste kostata lortutako altxorra arriskuan jartzea merezi zuenik ezer ez. Beste batzuk ez ziren uste horretakoak, nonbait, eta suhartasun handiz ekiten zieten garrantzi handirik ez zuten lanei, baina ulertzekoa ere bazen hori: zer galdu askorik ez zuten, beste horiek. Berak, berriz, arrazoi duin bat behar zuen, bere ospearen eta bere merituen mailako eginkizun bat behar zuen, ekiteko. Antzi nako garaiak amesten zituen, munduan heroiak eta erdijainkoak bizi ziren, artean aurkitu gabeko kontinenteak ziren eta Itsaso Gorriaren beste aldera eramane beharreko herriak zeuden garai haiek. Garai haiek joan ziren, ordea, tamalez: horrekin ez zen orain. Eta hala, Koldok ez zuen gastatzen bere altxorra, eta ondasunak handituz zihoazen.

Egun batean Koldo hil egin zen. Oso hileta ospetsuak izan ziren, noski. Bere azken egoitzara laguntzeko, batera joan ziren herria eta agintariak, tristetraste denak: neurritz, zuhurtziaz, diskrezioz. Musikabanda batek maila handiko musika jo zuen.

Gaur egun Koldoren ondarea baztertuta dago. Edo saguek jan dute. Erosi behintzat, inork ez du hartatik erosi.

Aurpegi bera

Markos eta Lukas anaiak ziren eta aurpegi bera zuten. Begi berdeberde berberak, handiak eta almendra itxurakoak: ile horizko kizkur berberak, sudur harro berbera, masail biribil berberak. Aurpegi ederra, egia esan: munduan zehar ibiltze ko bisitatxartel bikaina. Horrelako aurpegi batek alaitasu na ematen dizu, begi berdeetan irribarre baten txispa nabari bada, masaila biribilean irrizulotxo bat badu eta kizkurak lasterraldi luze baten ondoren deseginda badaude, batez ere. Horrelako aurpegia zutela, txerazko begiradak jasotzen zituz ten Markosek eta Lukasek, nora ere joaten ziren, eta besteek haiekin elkartu nahi izaten zuten, haiekin hitz egin, eta inoiz, lotsa pixka batez, edozein aitzakiz baliatu, eskua luzatu eta kizkur haiek, masaila puztu haiek ferekatu. Gauzak ezin ho beto zihoazen, beraz, arazotxo batengatik izan ez balitz: aurpegi berbera, berdinberdina zutenez, Markosek eta Lukasek ezin zuten aldi berean erabili aurpegi hura. Aurpegia Marko sek zeukanean, Lukas batere gabe geratzen zen, eta alderan tziz.

Hori ez dela arazo larria, esango duzue, hobe delako den boraren erdian aurpegi ederra edukitzea, denbora guztian aurpegi itsusia edukitzea baino. Markos eta Lukas molda zitezkeen, funtsean. Egun batean batek erabil zezakeen aurpegia –Markosek, eman dezagun–, eta ingurukoak harekin egongo ziren, hitz egingo zioten, eta edozein aitzakiz baliatuko ziren ilea ukitzeko. Bitarte horretan Lukas aurpegirik gabe egongo zen, baina hurrengo egunean erabiliko zuen, eta bi tarte horretan ingurukoek lagun egiten ez bazioten (aurpegi rik ez dutenek ez baitute estimazio handirik izaten), denbora kontua izango zen: hurrengo egunerako beste modu batera izango ziren gauzak, eta lagunak inguratuko zitzaizkion. Bi en bitartean beste gauza batzuk ere egin zitzakeen: gutun bat idatzi, diskoak entzun edo eskolako lanak bukatu. Ezagunak izatea oso gauza polita da, baina astia kentzen dizu.

Hori esango duzue, Markosek eta Lukasek bezala aurpegi bat ez duzelako, baina esaiezue haiei. Horrelako aurpegi bat duzunean, konponbideak ez dira errazak izaten. Ohitu egiten zara besteak zurekin egotera eta barre egiten ikusi nahi izatera eta eskua luzatu eta ilea ukitu nahi izatera; aurpegirik gabe ba zaude eta inguruan inor ez baduzu, beraz, teorian izango ze nuke eskutitz bat idaztea edo eskolako lanak bukatzea, baina, izan, ez duzu gogorik izaten eta sofan etzanda geratzen zara, aurpegia zenuenean gauzak nola ziren pentsatzen.

Horregatik ahalegintzen dira Markos eta Lukas aurpegi berbera ez izaten. Batak gezurrezko biboteak jartzen ditu, besteak oinetakoak garbitzeko lustreaz tindatzen du ilea, edo atzeraka orrazten du gel pixka bat emanda, edo belarritako bat edo kateko orratz bat jartzen du sudurrean. Baliteke lehen bezain ederrak ez izatea, baina bai egunero lagunak izateko adina. Ez dituzte eskutitz asko idazten, ez dute eskolako lan asko egiten, baina pozik daude: orain aurpegi berbera ez du tenez, bakoitzak berea izan dezake.

Denbora joan

Garai batean denbora ez zen bere kabuz joaten: bultza egin behar zitzaion, igaroko bazen. Gogotik lan egiten bazenuen, hara eta hona lasterka ibiltzen bazinen, bizkor igarotzen zen denbora; baina sofa batean esertzen bazinen, bertatik geldi tzen zen denbora eta denboraren gurpilak ez ziren mugitzen.

Gizakiek lehen bezalatsu lan egin izan balute, gauzak on gi joan izango ziren, baina ez zen hala izan. Goizean, batzuk ohetik jaiki eta eguneko lanei ekiteko prestatzen ziren bitar tean, beste batzuk alferkerian geratzen ziren ohean, maindi reak astindu gabe. Eta eguerdian, platerak garbitu eta gaueko afaria pentsatu beharra zegoenean, batzuk siestatxo bat egite ko etzaten ziren, beste batzuk lanerako prestatzen ziren. Ho rrela, beraz, batzuentzat ziztu batean igarotzen zen denbora, eta beste batzuentzat mugitu ere ez zen egiten; batzuk begien bistan zahartzen ziren, eta beste batzuk haur geratzen ziren betiko.

Handik pixka baterako Jaungoiko Jaunak aitortu beharra zian zuen sistema horrek ez zuela funtzionatzen: baziren gu rasoak baino zaharragoak ziren seme edo alabak eta elkarre kin mendetako aldea zuten anaiarrebak ere. Baina Jaungoiko Jauna ez zen haserretu, horrenbestez: bazekien gauzak lehe nengo aldiz egiten direnean, beti izaten dela konpondu be harreko akatsen bat. Horrela, bada, ongi pentsatuta, handik aurrera denbora gizaki guztientzat abiada berean igaroko zela erabaki zuen, zernahi eginda ere, lo egin ala arrantzan jardun, berdin zion.

Harrezkero ez du merezi kutxa batean edo armairu batean ezkutatzeak, edo arnasari eutsi edo batere mugitu gabe egote ak. Berdinerdin igarotzen da denbora, bere gisara.

Musika-nota urdina

Behin batean bazen musikanota urdin bat. Nota baxu bat zen, ez zen batere adierazgarria: gainerako notek ez zioten jaramonik egiten eta ez ziren arduratzen harekin harmonian egoteaz. Nota urdina bakarrik geratzen zen eta ia sumatu ere ez zen egiten: kaleko eta patioetako zaratarekin nahasten zen eta inoiz ez zen musika biurtzen. Ez zekien urdina zenik ere, inork ez baitzion esaten. Gainerako notek ez zuten kolorerik, eta ez zioten kasurik egiten: haientzat tinbrearen distira, irau pena eta intentsitatea baino ez ziren kontuan hartzekoak. Ho riek in baizik ezin zitekeen musikarik egin. Nota urdina baxua eta indarrik gabea zen, eta dantza egiten saiatu eta etengabe lore batetik belar batera, soro goldatu batetik mendigailur batera jauzika jarduten bazuen ere, inoiz ez zuen lortzen abes ti alai baten doinua entzunarazterik. Triste eta deprimituta bizi zen, horregatik.

Baina ez zen bakarra, horretan. Zeren bazen besteek en tzuten zituzten notak berari iristen ez zitzaizkiolako eta musu karik sortzen ez ziotelako triste zegoen mutiko bat ere. Beste mutikoak abesten ari ziren bitartean, ahoa arrunkeiaz eta do toreziarik gabe zabaltzen ikusten zituen, eta ez zuen ulertzen zergatik barre egiten zuten. Eta, entzuten ez zuenez eta uler tzen ez zuenez, ez zen gai hitz egiteko eta musika egiteko.

Egun batez, entzuten ez zuen mutiko horrek nota urdina rekin topo egin zuen, nota hura ezki-lore zuri baten inguruan hegan egiten saiatzen ari zen unean. Zoragarria iruditu zitzaion: haren kolore urdina eta lorearen zuria ezin hobeto egokitzen ziren elkarrekin, eta belarraren berdearekin eta mi txoleten gorriarekin, eta nota urdinaren zalutasunak eta arin tasunak poza eta alaitasuna ematen zion. Mutikoak inoiz ez zuen notarik ikusi, beste nota guztiak kolorerik gabeak zirela ko; horregatik, txundituta geratu zen, eta haren atzetik abiatu zen, zohi batetik ahuntzaren bizarretara, leihoarasa batetik lorategi bateko loreetara hegan zihoan bitartean. Eta haren atzetik ibiliz, irribarrea ateratzen zitzaion, ikusten ari zen hura musika zelako eta orain bazekielako musika nola egin.

Denbora behar izan zen nota urdina mutikoaz ohartzeko: bakarrik luzaro egoten ohitu denak, azkenean besteei ez die arretarik egiten. Erreparatu zuenean, ordea, txundituta geratu zen bera ere: gainerako notak zoliagoak, luzeagoak, distira tsuagoak ziren: zergatik jarraitzen zion, hortaz, berari, muti ko hark? Gero, polikipoliki ohartuz joan zen, eta poztu egin zen. Handik aurrera bera ere konturatu zen urdina zela.

Inorez

Behin batean inor ez zegoen, baina nork esan? Inork ez, jakina: inor ez zegoenez, inork ezin ezer esan. Horregatik, oso bitxia zen inor ez zegolako istorio hura. Egia zen, hori bai, inor ez zegoelako, baina inork ezin zuen esan hori.

Geroago, noizbait, norbait izan zen, baina gauza bitxiak ez ziren bukatu horrenbestez. Norbaitek noizbait inor ez zegoe lako istorio hori kontatu zuenean, gainerako guztiek kopeta zimurtu zuten eta sekulako galderaikur handiak jarri zituz ten. Zeren, nola jakin garai batean inor ez zegoenik? Inor ez zegoenean, hori jakin zezakeenik ere inor ez zegoen, eta nor bait izan zenean, ezin esan inor ez zegoenik. Beraz, behin egia izan zen inor ez zegoelako istorio hori, baina inork ezin esan.

Orain denek diote beti izan dela norbait. Ez da egia, ja kina, garai batean inor ez zegoelako. Baina esan al daiteke besterik?

Mapa

Anttonek mapa bat aurkitu nahi zuen. Seguru nahi zuen orientatu, eta gauzak eta lekuak non zeuden jakin nahi zu en: etxetik kioskora edo izozkidendara zenbat zegoen; non biratu behar zen plazan lagunekin elkartzeko; futbolzelaia iparraldean ala hegoaldean, ala erdialdean zegoen; trenbidea airetik edo itsaspetik zihoan. Baina hainbesteko zehaztasuna ezinezkoa zela zirudien: gauzak aldau egiten ziren, mugitu egiten ziren, eta Anttonek ezin zuen dendena laburbildu. Egun batean izozkidenda ixten zuten; hurrengoan izozki denda bihurtzen zuten kioskoa; astelehenean lurrikara batek futbolzelaia bota eta adreilu pila bat eginda uzten zuen; as teazkenean Lurraren berotzeak airetik zihoan trenbidea itsas peko trenbide bihurtzen zuen. Lurraren ardatza ere kontuan hartu behar zen, gainera, batzuetan kolpetik aldatzen baitzen: iparraldeko haizea hego haize bihurtzen zen eta Saharako hai zea Groenlandiatik zetorren.

Horrela ezin zuela segi erabaki zuen Anttonek. Goiz ba tean animoso jaiki zen, kioskora joan (une hartan kioskoa zegoen lekura) eta gurutze bat jarri zuen gainean; eta harrez kero kioskoa ez zen mugitu. Ondoren gauza bera egin zuen izozkidendan (une hartan izozkidenda zegoen lekuan) eta futbolzelaian eta eskolan eta plazan eta Groenlandian eta Tinbuktun. Lan asko zegoen egiteko, gurutze haiek guztiak jartzen; baina oso lan polita zen, zeren orain egin baitzitekeen mapa on bat eta seguru egon hurrengo egunean ere balioko zuela, eta baita hurrengo hilabetean ere eta baita mende baten buruan ere eta berdin mila menderen buruan.

Gaur egun Donostia inguru guztian daude gurutzeak. Eta pozik eta seguru dago horrekin. Inoiz edo behin burutik pa satzen zaio gurutze bat jarri beharko lukeela bere gainean ere; hala gauza bakoitzak bere leku jakina edukiko luke mapan, eta zalantza guztiak kito izango lirateke.

Munduko gaitzak

Garai batean hurrek inoiz ez zuten indijestiorik izaten. Kiloka goxoki eta turroi jan, eta mantapean kuzkurtzen ziren, suge bat sator bat jan ondoren lurlean kiribilkatzen den beza la. Goxoki haiek guztiak irentsita egin beharrak egitea neke tsua izaten zen, jakina, eta inoiz malkoak ere etortzen zitzaiz kien begietara. Baina goxokiak jatea hobea zen ez jatea baino, eta inor ez zen hasten estuarena egiten: gauzak zetozen bezala hartzen ziren, malko eta guzti, eta, oro har, gauza txarra ez zela pentsatzen zen.

Behin bekozko iluneko sendagile serio bat azaldu zen, be sapean liburu lodi pila bat zuela. Hurrei eserleketan eser tzeko agindu zien eta lezioa ematen hasi zitzaien. Urdailaz, kiloaz, zukuez, humoreez, azidoez eta gatzez hitz egin zien: horrek denak oso oreka hauskorrean nola egon behar duen, eta nola beti dagoen arriskua oreka hori gutxien uste denean hausteko eta zarata handi batez erortzeko. Haurrak beldurtu egin ziren, eta beldurrarekin arazoak hasi ziren. Lehen, izan ere, dijeritu egiten zuten, jakin gabe: zenbaitetan errazago, besteetan gehiago kostata, baina dijeritu egiten zuten. Orain berriz, “dijeritu” hitz misteriotsu eta mehatxagarri hura eta beste hitz misteriotsu eta mehatxagarri asko ikasita, kezka betirik zeuden beti. “Dijerituko ote dut hau? –pentsatzen zu ten edozer gauza ahora eraman baino lehen–, dijeritzeko mo dukoa ote da? zer ondorio izango ote du nire dijestioprozesu etan?, ez ote dit indijestioaren bat emango?”

Eta kezkatuta zeudenez eta hainbeste galdera zutenez, arreta handia eskaintzen zioten beren barruan gertatzen zen guztiari. Min pixkapixka bat sentitzen zuten orduko, der diot?, gurgura bat sentitzen zuten orduko, hitzuholde bat hasten zitzaien belarrietan burrunbaka: “Begira, ez dut ongi dijeritu”, “Indijestioa eragin didan zerbait jan dut”, “Dijestioa errazteko zerbait hartu behar dut!”. Eta, azken buruan, ezin ezer jan; ez bakarrik goxokiak eta turroia, baizik eta ezta me nestra eta okela ere, eta ez ziren jolas egiteko gauza ere.

Jolas egiteko gauza ez zirela ohartu zirenean, hurrek bilera bat egin zuten lore hori pila bat zegoen belardi berde batean eta erabaki hauek hartu zituzten. Lehenik eta behin, senda gileari ipurdian ostiko bat eman eta handik uxatzea. Bigarre na, eserlekuak kendu eta eskolara ez joatea. Hirugarrena, hitz kezka garririk eta mehatxagarririk ez erabiltzea. Esan eta egin;

sendagileari ostiko bat eman zioten, eserlekuak belardira era man eta piknik bat egiteko erabili zituzten, eta kiloka goxoki eta turroi jan zuten. Handik pixka baterako, bakea zegoen.

Eta puska batean bakea izan zen. Harik eta handien gelatik zarata handi bat entzun zen arte. Hurrek, jakinminez, atea zabaldu zuten, eta zer ikusiko? Beraiek ostikoz bidalitako sen dagilea handiengana joan eta haiek hitz egiten utzi... eta hark dijestioarenak ez ezik gainerako gauza ilun eta beldurgarri haiek guztiak irakatsi zizkien. Eta orain, sendagilea bere ka tedratik urrumaka eta pozpozik irribarrez ari zen bitartean, handiak garrasika eta etsita zeuden, elkarri ostikoka. Aurkitu berriak zituzten munduko gaitz guztiak.

Hurrek soinak jaso eta atea itxi zuten. Belarrietan kotoia sartu eta mantapean kuzkurtu ziren, turroi puska eder banarekin.

Aingeruaren izerdia

Aingerua etorri zen lekuan hotz egiten zuen. Malkoak, masailetan behera irristatu ordez, izoztu egiten ziren; izer dia poroetan gogortzen zen; horregatik, Aingeruak ez zuen ez izerdirik ez negarrik egiten. Inguruan zuen guztiari begira egoten zen bere begirada garbi eta argiaz; begirada bat aski zuen belarprintza ororen, inurri ororen, ipurtargi ororen ez kutuko egitura atzemateko. Eta bakarbakarrik geratzen zen, argitasun harekin gaiztakeria guztiak uxatzen zituelako, gezur guztiak argitzen zituelako. Jende guztiaren eguneroko ogia di ren gezur eta gaiztakeria haiek bakardade hartatik askatu ahal izango lukete, beharbada.

Behin Aingeruak begiak itxi zituen eklipse bat ez ikusteko, iktiosaurio bat bidera atera zitzaionean beste alde batera be giratu zuen, ez zien arretarik jarri zerumugan eratzen ari ziren ekaitzei. Bere barnera begiratu zuen, horren ordez; eta hu tsune handi bat ikusi zuen. Eta negar egin zuen; eta malkoei kostatzen zitzien hodi zurrunduak zabaltzea, baina azkenean bidea zabaldu zuten eta uholdeka atera zitzaizkion masailetan behera. Eta berotasun handi bat sentitu zuen barruan, dese rosotasunaren edo tentsioaren eraginez, beharbada; eta izerdi tan blai zegoela ohartu zen.

Hainbeste historia

Historiaren une batean, norbaitek kontentu ez zegoela adierazi zuen. Historiaz, alegia: ez zegoela batere kontentu historiak zeraman bidez eta berari jokatzea suertatu zitzaion paperaz. Bigarren mailako pertsonaia zen; taldeekintza ba tzuetan parte hartzen zuen eta esaera dibertigarriren bat edo beste botatzen zuen, baina gertakizunen nondik norakoan ez zuen pisurik, ez zuen historia aldarazten, jende guztia arnasa rik gabe uzten zuten uneetan inoiz ez zen agertzen. Mundu berri baterantz abiatu behar zenean, justujustu agertzen zen kaian pilatzen zen jendearen artean; maitale gazteak ilargiaren argitan neska ederra beso artean estutzen zuenean, bera ohe ratuta egoten zen, hotza harrapatuta. Ez zegoen eskubiderik, esaten zuen gure pertsonaiak: hainbeste denbora eta hainbes te eszena eduki jokatzeke, zirkunstatziarik desberdinenetan, eta al ez zegoen modurik paper esanguratsoagoren bat joka razteko?

Lehenago ere izanak ziren horrelako kexuak, baina etsiak, beldurrez eginak ziren denak: korridoretako ahotsak, festa hondatzaile petraltzat inork har ez zitzaiz segituan itoak. Gure pertsonaia hau, berriz, ahots goran mintzatzen zen, haserre samar, eta aitzakia asko ematen zuen; eta haren errebindika zioak hasiak ziren nabarmentzen, kontentu ez zeuden beste batzuegan ere oihartzuna aurkitzen. Autorearekin harreman netan jartzen saiatu ziren orduan, baina ez zuten aurkitu: Historia idatzi ondoren urrutiko uharte batera erretiratua omen zen; uharterik perfetuena omen, eta ezin omen daiteke ames tu ere hura baino hobirik; eta Autoreak ez zuen nahi inork traba egiterik. Testua bilatu zen, aldaketa batzuk egin eta bes te pasadizoren bat txertatzeko, baina inork ez zekien non ze goen testua; areago oraindik, zurrumurrua zebilen testurik ez zela existitzen, ez zegoela idatzita. Bakoitzak bazekien zer egin eta zer esan behar zuen; beraz, ez zegoen Testu bat izan be harrik; automatiko joka zitekeen Historia, korda emandako erloju batek gelditu gabe funtzionatzen duen bezala.

Puska batean horrela jarraitu zen, beraz, giroan geroz eta tentsio handiagoa sumatzen bazen ere: alde batetik pertsonaia errebeldea, geroz eta jarraitzaile gehiagorekin, eta bestetik ir tenbideren baten bila saiatzen ziren bolondres setatiak. Egun batean ordea, pertsonaia errebeldea aspertu egin zen hainbes te itxaron eta itxaron eta hainbeste historiarekin: zerbait egin beharra zegoen, aukera ausart bat egin beharra zegoen. Ho rrela, bada, karabela bat

mundu berri baten bila itsasoratzeraz zihoan hurrengoan, kapitaina itsasontziko zubitik jendetzari agur egiten ari zen bitartean, jende artetik atera, itsason tziraino zegoen tartea urrats handiak eginez igaro, sokazko eskailerari sendo heldu, kapitainari eskuetan erratz bat jarri eta bultzada batez itsasontzi barrua garbitzera bidali zuen, eta bera jarri zen haren lekuan, itsasontzia helmuga ezezagun ba terantz abiatzen ari zen bitartean jendetzari agur egiten.

Egun hartaz geroztik haren berri ez da askorik entzun, bai na haren ekintza hura betirako geratu da Historian idatzita. Eta Historia bera ere Egun hartan eta Ekintza harekin buka tu zen, errebeldearen aldekoek haren ereduari jarraitu baiti ote, eta era guztietako aukera harrigarriak, apeta hutsezkoak eta askotan zentzugabeak egiten hasi baitziren geroztik. Gaur egun, beraz, hainbeste historia, hainbeste ekintza, hainbeste testu eta hainbeste autore daude, denak letra xehez idatziak, non, norbaitek bere burua serioegi hartu eta Autorea dela esa ten hasten bada, Historia hura kontatzen diote (edo Historia txoa, orain eßsaten den bezala), eta nola bukatu zen azaltzen diote: nola horretarako aski izan zen jendetzaren artetik ir ten eta urrats handiak eginez norbere patutik bereizten zuen tartea igarotzea. “Norbere” hitza nabarmenduz, eta ez “patu” hitza.

Hogeita hamabigarren orrialdea

Hogeita hamabigarren orrialdean ez zegoen ezer idatzita. Ezta “32” ere. Hogeita hamabigarren orrialdea zuri zegoen. Lehenengo kapitulua hogeita hamaikagarren orrialdean bukatzen zen, eta argitaratzaileak hurrengo kapitulua ezkerreko orrialdean hasterik nahi ez zuenez, hogeita hamahirugarren orrialdean hasi zuen, hogeita hamabigarren orrialdea zuri utzita. Gainerako kapitulu guztiak ezkerreko orrialdean bukatzen ziren eta ez zegoen, beraz, orrialde zuririk utzi beharrik; horregatik, hogeita hamabigarren orrialdea zen liburu hartako orrialde zuri bakarra.

Liburu bateko orrialde zuri bakarra izatea ez da gauza atsegina. Liburuak munduaren gainerakotik bereizitako herritxo batzuk bezala izaten dira. Denbora gehienez apalean egoten dira, bakarbakarrik, eta azalak baino ez du harremanik izaten kanpoko munduarekin: beste liburuazal batzuekin, gehien bat, baina baita eguzkiarekin eta hautsarekin, eta aldi berean kanpoko albisteak dakartzan euli berritsuren batekin ere bai. Norbaitek apaletik ateratzen baditu, ez ditu zabaltzen ere; beste norbaiti erakutsi bai, beharbada, baina orduan ere azalaz baizik ez du gozatzen munduaz. Eta zabaltzen direnean ere, orrialde bakoitzak minutu bakan batzuetan baizik ez du ikusten argia, eta argiaz ahal den guztia gozatzeko ahalegin horretan askotan gertatzen da nahastea eta gero ezertaz ez gozatzeko. “Zenbat pertsona zeuden eserita ni irakurtzen, bi ala hiru? Eta nitaz hitz egiten zuten? Eta gustatzen nintzaion? Ez naiz ohartu, ez naiz gogoratzen, eta baliteke beste inoiz halako ukerarik ez izatea”.

Horregatik, bada, liburu bateko orrialdeek elkarrekin hitz egiten dute batez ere. Eta, zer esan askorik izaten ez dutenez, elkar larrutzen aritzen dira gehienbat. Pentsatzen ahal duzue nolakoak entzun behar izaten dituen orrialde zuri batek. “Be gira horri: zenbakirik ere ez du”. “Ondoan duen orrialdeagatik ez balitz, zein den ere ez luke jakingo”. “Batere ez balego ere berdintsu izango litzateke”. “Liburua garestitzeko baizik ez du balio”. Eta halaxe, isildu ere gabe. Horrelako gauzak ez dizkiote aurpegira esaten, baina leku askorik ere ez da izaten liburuen artean eta lehenago ez bada geroago entzun egiten dira. Hogeita hamabigarren orrialdeak pazientzia handia zuen eta ez zuen protestarik egiten, baina asko sufritzen zuen.

Behin jabea agertu zen bere semearekin; mutikotxo geldi gaitz bat zen; okerren bat errazago egingo zuen, zuzena bai no; hori seguru. Liburuazalak kezkatuta zeuden. Askok egin zuten asperen, aitari entzunda lasaiturik: “Oraintxe emango dizut puskatzeko liburu bat. Hartu hauxe.

Ez du ezertarako balio". Orrialde zuria zuen liburu huraxe zen, eta mutikoak paper pila bat bihurtu zuen santiamen batean. Orrialdeak ha erre eta txundituta zeuden, baina haien abenturak ez ziren hartan bukatu. Handik pixka batera orri artean bila hasi zen aita; orrialde zuria hartu eta hegazkintxo bat egin zuen. Alde zuria kanporantz jarri zuen, hala politagoa iruditzen zitzaio lako; hala bada, hogeita hamaikagarren orrialdeak (lehenengo kapituluaren bukaera zenez, erdiraino zegoen idatzita) ezin zuen ikusi zer ari zen gertatzen. Geroxeago ama azaldu eta esan zuen:

–Zer egin duzue? txukundu hori dena!

Gainerako orrialdeak sutara joan ziren eta haietako hi tz eder guztiak errauts bihurtu ziren. Hogeita hamabigarren orrialdea, berriz, lorategira joan zen hegan, eta zuhaitzak eta tximeletak ikusi zituen, eta ongi begiratzeko astia eman zion. Hogeita hamabigarren orrialdean ezer idatzita ez zegoelako, hori dena. Ezta "32" ere.

Gizon hilezkorra

Behin, ezin jakin nola, gizon hilezkor bat jaio zen. Zeha tzago esateko: nahi zuenean hil zitekeen; horretarako aski zen Iturri Gaiztoko ura edatea; baina nahi ez bazuen ez zen hilko, eta hori bai zori handia. Iritzi horretakoak ziren behintzat ha ren lagunak eta familiartekoak; eta zorionak eman eta eman aritzen zitzaizkion.

Gizon hilezkorra handitu egin zen, lana aurkitu zuen, ez kondu zen eta semealabak izan zituen. Eta pozik eta kon tentu bizi izan zen, aldi batez. Gero, ordea, inguruko jendea hiltzen hasi zen: ezagutzen zituen guztiak eta emaztea eta se mealabak desagertuz joan ziren bananbanan. Orain jende berria agertzen zen, eta gizon hilezkorrak hutsetik hasi behar izan zuen berriro: berriro ezkondu, beste semealaba batzuk izan, beste lagun batzuk bilatu. Lagun berri bat egiten zu en bakoitzeko, hutsetik hasita kontatu behar izaten zion bere historia guztia, bere historia ezagutzen zuenik ez baitzen iza ten dagoeneko, eta historia luzea zen, gainera, egunetik egu nera luzeagoa. Eta gizon hilezkorri iruditzen zitzaion ez zu ela merezi historia hura kontatzea, zeren lagun berri hura ere galdu egingo baitzuen handik urtebetera edo ordubetra. Eta geroz eta gutxiago agoantatzen zuen besteen begietan ikusten zuen beldurra eta amorrua.

Udaarratsalde batean, beraz, gizon hilezkorra Iturri Gaiz tora joan zen, hari zerion uraren aurrean eseri zen eta ordu luzeak eman zituen hari begira. Egia esateko, ikusi ere ez zuen egiten, ura: bere bizimodu gogor eta kupidagabe hartan pen tsatzen zuen. Azkenean jaiki, makurtu eta edan egin zuen; han zeuden pertsona bakanak harrituta geratu ziren. Eta baita gainerakoak ere; amorruz eta beldurrez erotutako hiri handi etan berria zabaldu zenean ezin izan zuten asmatu zergatik.

Bihar

Behin batean bazen bihar. Orain dagoeneko ez da. Beste egun bati deitzen diote bihar, baina bihar dagoeneko ez da go. Bihar atzo bihurtu zen, edo iaz. Mutiko jatorra izan eta oilaskolapur bihurtzen denarena bezala: ez da bera, beste bat da orain.

Bihar egun eguzkitsu eder bat zen. Goizean goiz jaiki eta sasosisoian sentitzen zinen. Kanpora atera eta belardian lau salto egiten zenituen, eta gero barrura berriro, dutxa on bat hartu eta ongi gosaltzeko. Kafesnea aurrean jarri eta egun har tan egin beharreko hitz egiten zen: eskolaren ondoren eros ketak egin behar ziren, lagunak ikusi behar ziren, eta gauean garrantzi handiko partida bat eman behar zuten telebistan. Gure ekipoak aski zuen berdinketa egitea azken finaletara jo ateko; kontrakoek erasoan jo beharko zuten, eta erasoan de fentsa ahaztuko zuten...

Ni bihar zalea zintzen. Aldian behin behar dira horrelako egunak: umore onean jartzen zaituzte eta irribarreak luzaro irauten dizu, itzaltzeko denbora luzea behar duen garrak be zala.

Orain, ordea, biharrik ez dago: atzo bilakatu da, edo iaz. Eta ez da gauza bera: bihar atzo bilakatu zenean euria ari zuen eta ezin zitekeen etxetik irten eta inork ez zuen hitz egiteko gogorik, eta gure ekipoak bosthuts galdu zuen. Kontrarioak eraso egitera behartuta zeuden eta eraso egin zuten.

Orain beste egun bati deitzen diote bihar, eta norbaitek esaten du egun honetan eguzkia egiten duela eta joan gaitetz keela kanpora eta irabazi egingo dugula partida. Eta baliteke egia izatea, baina beste egun hau ez zait interesatzen; okerra go, ez dakit zergatik deitzen dioten bihar. Biharrik ez dago: atzo bilakatu da, edo iaz.

Adar bakoitzen lurraldea

Sinestekoa ote da adarbakoitzak, begi amultsu eta mantsu ko hipogrifoak, sirena atsegin ederrak, denak desagertu zirela? Ez horixe: hemen daude oraindik. Ez ditugu ikusten, hori ez. Argiak ez du atseginik hartzen haien gorputz ederrak zipriz tintzen, teilatuko urak egun euritsuetan zipriztintzen duen bezala. Barrenera sartzen zaie, ura lur harrotuan sartzen den bezala, eta hantxe ezkututzen da, pozik eta kontentu. Argiak maite ditu eta beretzat nahi ditu.

Usaina, ordea? Goroldio eta belar bustiaren usain hura, eguzkiaren eta urrutiko hondartzen usain hura, erle berritsu ek gortejatutako lorehostoen usain hura? Usain hark ez du nahastu nahi planeta hau hutsatuta daukaten kirats nazkaga rriekin. Beldur da kutsatuko ez ote den, ez ote duen galduko bere arintasuna, bere garbitasuna, eta hala jarraitzen du lotu rik, ez da ateratzen aire kutsatuetara, ez zaigu iristen guregai naino.

Egia da topa genitzakeela oraindik, laztandu genitzake ela haien forma harmoniaz beteak, besarkatu genitzakeela. Edo entzun genitzakeela haien kantuak ilargi beteko gauetan, amesteko nahikoa argi baina ikusteko ilunegi egiten duenean. Gu, ordea, telebistari begira geratzen gara gauean, eta egunez geroz eta gehiago urruntzen gara haiek beren irtenaldietan erabiltzen dituzten bidezidor ibilgaitzetatik. Bide berberetatik ibiltzen gara denak batera, zarata handia eginez. Eta zaratak, gauza jakina da arreta jartzea eragozten duela. Zaratak itsutu egiten du.

Ez sinistu kontatzen dizuetena: adarbakoitzak ez dira bizi mundu honetatik kanpoko iritsi ezinezko urrutiko lurralde batean. Gure artean daude, inoiz ez dute hemenik alde egin, eta betiko bideetatik kanpo bilatzen baduzue, ilargi beteko gauetan belarria luzatzen baduzue, egonarriz eta adi itxaro teko ausardia baduzue, baliteke egunen batean haiekin topo egiteko eta haien harmoniaz betetako formak laztandu eta besarkatzeko aukera izatea. Orduan, nork jakin, baliteke go roldio eta belar bustiaren usainak ez izatea zuekin kutsatzeko beldurrik, eta argia ados egotea haiengan ispilatu eta haiei di en maitasuna zuekin ere partekatzeko.

Batez besteko bizitza

Tomas nekazari arrunt bat zen. Bazituen emaztea, seme alabak, lehengusuak eta ilobak, oiloak eta untxiak, eta petral itxurako astotxo bat. Astean sei egunez lan egiten zuen eta zazpigarrenean atsedean hartzen zuen: normala, eskobaparti da bat, basoerdi ardo eta solasaldi batzuk lagunekin. Gaztea zenean mendiko soldadu izana zen, eta aldian behin oraindik ere joaten zen haien topaketetara; elkarrekin kantuan egiten zuten eta emozio handiz besarkatzen zuten elkar.

Egun batean emazteak babarrunak prestatu zizkion. Hain besteraino gustatzen zitzaizkion babarrunak, eta hain ona zen gainera egun hartan prestatu ziona, non hamar platerkada jan baitzituen, eta betebeterik sentitu zen, urdailak danborra bailitzan azala tenkatzen ziola. Oheratu zen eta han hil zen. Hemen bukatu da historia, esango duzue. Ba, ez: hasi egiten da hemen, zentzu batean.

Zeren jakin behar duzue begiak betirako itxi zituen une hartan, garai hartako gizonezkoen batez besteko bizitza doi doi bete zuela Tomasek: hirurogeita hamabi urte, lau hilabe te, hamaika egun, hiru ordu, hogeita bost minutu, berrogeita zazpi segundo eta hogeita hemeretzi ehunen. Eta denbora ho ri zehazki bizi izandako bakarra zen, gainera, zeren, nola esan, dendanak justu bizidenbora horixe beteko balute bezala bai ta batez besteko bizitza, baina inor ez da denbora horretan zehazki bizitzen. Batek hogeita hamar urte egingo ditu, beste batek berrogeita hamar, eta batez bestekoa berrogei izango da, baina gerta daiteke berrogei urte inor ez bizi izana.

Datu guztiak jasotzen dituen ordenagailuak Tomasen he riotzarenak jaso zituenean, argi gorri pila bat piztu zitzaion eta txirrin pila bat hasi zen joka eta bata zuriaren patrikan bo ligrafoa zuten gizon pila bat mugitu zen. Kointzidentzia han diegia zen, aukera hura galtzeko. Batez besteko bizitza zehazki bizi izandako gizon bat gizon guztien ordezkaria da, nolabait, horretan eta zehazki ikertu behar da, ongi arakatu behar da, denei buruz dena jakiteko modu bat delako, nolabait.

Herralde osoan ezagutu zen kasua. Espezialista, ikertzaile, kazetari, teleaurkezle, iritziemaile, komentatzaile eta kanta ri arin pilak inguratu ziren etxaldera; emazteari, semealabei, lehengusuei eta ilobei elkarrizketak egin zizkieten, oiloei eta untxiei argazkiak, astoaren

arrantza zuzenean emititu zuten, babarrunen prestaeraren ikerketa zientifiko bat egin zuten. Ekimen handiko pertsona batzuek aste osoak igaro zituzten han inguruan kartatan jokatzeko, Tomasen lagunak izandako ak hobeto ezagutzeko, eta izan zen soldadutxanoa jantzita soldaduhien topaguneetara azaldu zenik ere. Handik hila bete batzuetara zokorik ezkutueneraino aztertua eta miatua zuten Tomasen bizitza, eta ikerketa horren guztiaren fruitu, azal forratuzko liburu handi bat argitaratu zen; Tomas neka zaria: gure garaiko gizona zuen izena. Herritarrek, harro bai harro, monumentu bat eraiki zioten plazan.

Horrela bada, aldi batez Tomas ez zen besteak bezalako gi zon arrunta izan. Ez zitzaion askorik axola, egia esateko: nor bait izaten hasi zenean, orduantxe galdu zuen interesa gauza horietan. Eta funtsean ongi dago, zeren ez baitzuen batere sufritu batez besteko bizitza hamabi segundo-ehunen luzatu eta berriro beste edozein bezalakoa bilakatu zenean.

Liburutegia

Behin, haitzuloetako gizona baino lehenago, mamutak eta dinosaurusak baino lehenago, lur honetan baziren oso zibiliza zio aurreratua, gurea baino askoz ere aurreratuagoa zuten iza ki batzuk. Hain ziren zibilizatuak non dendena baitzekien; ez ordu arte gertatutakoa bakarrik, baita gero gertatu behar zuena ere, handik minutu batera, urtebetera, mende batera gertatu behar zuena ere. Bazekiten euria egin behar zuen ala ez, edo nork irabazi behar zuen Frantziako Tourra, noiz izan go zuen gosea Iratik eta zer jango zuen. Egia da ez zirela den bora guztian gogoratzen horretaz: haiei ere gertatzen zitzairen gauzak ahaztea, edo zerbaitetan ez pentsatzea. Eta haiei ere gertatzen zitzairen harritzea euria egiten bazuen edo Iratik go sea bazuen; baina mahaian eseri, bi kontu atera eta zertaz ha rriturik ez zegoela ohartzen ziren. Gauzak gertatu ziren bezala gertatuta, ezinbestekoa baitzen euria egitea edo Irati goseak egotea.

Egun batean (egun tamalgarri batean, ikusiko dugunez), aginte handiko norbaitek ustekabeko haiek guztiak bukatu egin behar zirela erabaki zuen. Gauza guztiak aurrez jakin zitekezkeela, zer gertatu behar zuen jakiteko kontuak egitea aski zela bazekitenez, merezi zuen kontu haiek behin eta beti ko egitea. Horrela bada, aginte handiko gizon hark liburutegi handi bat eraiki zuen, kontugile pila bat bildu eta lanean jarri zituen. Kontugile haiek X egun batetik aurrera hasi ziren, eta egun hartan gertatu behar zuen guztia argitu, liburu handi batean idatzi, eta liburutegiko apal batean jarri zuten liburu hura. Eta hurrengo egunari ekin zioten. Eta halaxe segidan, egun bakoitzeko liburu bana, hilabete bakoitzeko apal bana, urte bakoitzeko horma bana.

Hasieran gauza dibertigarria iruditzen zitzairen, eta balia garria ere bai. Igandean zer eguraldi egin behar zuen jakin nahi bazenuen, liburutegira joan eta segituan erabaki zenezakeen hondartzara joan ala etxean gelditu. Zer erabakiko ze nuen ere liburuan idatzita zegoen, jakina; baina arrazoizko erabakia izaten zen, eta inor ez zen kexatzen lehendik idatzita egonagatik. Handik pixka batera arazoak hasi ziren, hala ere. Berehalaxe ikusi zen inork ez zuela korritu nahi Frantziako Tourrean edo futbol partida bat jokatu, nork irabazi behar zuen aurrez jakina zelako. Haur bat jaiotzen zenean, gauza polita izaten zen lehenengo hortzak zenbat hilabeterekin ate

rako zitzaizkion jakitea, baina eskolan diktaketan lau bat ate rako zuela edo oporretan besoa hautsiko zitzaiola jakitea ez zen horren polita.

Hiru urtez lan egin ondoren, kontugileek hogeit hamar be teta zeuzkaten, eta ondorioak ezin txarragoak ziren. Noiz hil behar zuten aurrez zekitenak oheratu egiten ziren eta ez zuten handik jaiki nahi izaten (hori ere liburuan idatzita zegoen, ja kina); gainerakoak urrutiko gauzez baizik ez ziren arduratzen, beren semealabei edo bilobei gertatu behar zitzaizkienez eta abarrez. Bien bitartean liburutegia aurrera zihoan.

Hamar urteren buruan solairu oso bat zegoen beteta, bai na lanak geldiroago zihoazen, kontugile asko ohean zeudela ko eta handik jaikitzerik nahi ez zutelako. Kanpoan ere gauzak ez zihoazen hobeto: familietan ohe gehienak hartuta ego ten ziren goizetik gauera, eta baita hurrengo goizera arte ere. Geroz eta jende gutxiago zebilen kalean, eskolan, tabernetan; autobusak erdi hutsik zebiltzan, eta zenbaitetan ibili ere ez, autogidaria oheratuta zegoelako eta jaiki nahi ez zuelako.

Kontugileetako bat izan zen oheratzen azkena. Ordurako dena itxita zegoen, baita liburutegia bera ere, baina hori ere idatzita zegoen liburu batean. Baina inolako liburutan idatzi ta ez zegoena zera zen, ordurako liburutegia itxita zegoelako: hain mundu zibilizatua hautsak jango zuela aurki, eta hauts haren gainetik igaroko zirela mamutak eta dinosauruak, eta haren gainetik igaroko zirela arrastaka eta arituko zirela bo rrokan haitzuloetako gizonak.

Oinatzak

Oinatzak erabat haserretuta zeuden oinekin, oinak harro putz hutsak zirelako. Oin bat hondarretan edo zementu be rrian edo jangelako aulki bigunean pausatzen zen bakoitzeko, oinatza agertzen zen: unean bertan, segundozatirik txikiena ere igaro baino lehen. Oina pausatu eta oinatza agertu ia gau za bera izaten zen, atzerapenik txikiena ere utzi gabe. Oinak eta oinatzak konpondu zitezkeen maila bera izanda, elkarre kin adostu eta elkar errespetatuz, bakoitzak berari dagokiona eginez, baina zoaz eta esaiezu hori oinei! Gauza guztien jato rria, bizitzaren oinarria zirela uste zuten.

–Guregatik ez balitz zuek ez zinateke existitu ere egingo –esaten zuten–. Zer axola dio noiz agertzen zareten? Gu pau satu baino lehenago azalduko bazinate ere, guk zer erabakiko egongo zinateke. Inori ez litzaioke buruan sartuko esaterik oinatzak badirelako direla oinak: alderantziz esaten da beti, eta ez arrazoia falta dutelako.

Geroago, egun batean, pertsona bat azaldu zen dendan, jantzi irazgaitz bat jantzita eta ur izoztuzko sifoi bat zuela, “Guardiak eta lapurrak” jolasaren azkeneko edizioa ematen ez bazioten denak bustiko zituela mehatxatuz. Bezeroak, izutu rik, eman egin zioten eskatzen zuena, eta hark norabait ihes egin zuen. Poliziainspektorea azaldu zen, eta oinatzak aurki tu zituen mendetako hautsetan.

–Lapurrak hemendik alde egin du, inondik ere –atera zu en ondorioa. Poliziamorroiak miresmenez begiratu zion, eta poliziainspektoreak ospetsu bihurtu zuten bere esaera haieta ko bat bota zuen–. Oinatzak dauden lekuan, oinak ere izan behar.

Kolpe latza izan zen oinentzat. Oinatzak barrez ari dira oraindik.

Leku bat ideia batentzat

Amaiak ideia bat izan zuen. Oso ideia ona: pentsatu hu tsarekin irribarrea eragiten dizun horietakoa. Amaiak gorde egin nahi zuen, gustatzen zitzaizkion gauzak gorde ohi zituen bezala. Behin, esate baterako, amona mantangorri bat aurkitu zuen, gorrigorria, puntu beltzekin; esku gainean zebilenean kilimak egiten zizkizun; alde egin ez zezan, mentazko goxo kikaxatxo zahar batean sartu zuen. Nahikoa leku bazuen mu gitzeko, eta Amaiak ogiapurrak jartzen zizkion beti, amona mantangorriak goserik izan ez zezan. Gero, esku gainean nola zebilen eta kilimak nola egiten zizkion sentitu nahi zuenean, kaxatxotik atera eta jolasean aritzen ziren elkarrekin. Beste batean maskor zuriurdi handi bat aurkitu zuen; belarrian jarri eta itsasoaren orroak entzuten ziren; komodako tiraderan gorde zuen, galtzen azpian. Han bigunbigun egon zitekeen, hondartzan bezala, hondartzan baino askoz ere garbiago, gai nera. Eta itsasoaren orroak entzun nahi zituenean, aski zuen tiradera zabaldu eta galtzak jasotzea.

Ideiari zegokionez, ordea, arazo handi bat zegoen. Ideiak ezin baitira kaxa batean sartu, ezin dira galtzen azpian gorde. Ideiak eskuan ere ezin dira eduki. Nola moldatu ideia bat ez galtzeko? Idazten baneki –pentsatu zuen Amaiak–, paperean josi eta ez luke alde egingo. Edo amari esan beharko nioke bestela, hark idatzi dezan. Baina ez –erabaki zuen ongi pen tsatu ondoren–, nork esaten dit niri paper gaineko marra horietan ongi josita geratzen dela ideia? Ideia da marra horien ondoan egon behar duena, eta marra horiek ideia ondoan du telako dira marra hutsak baino gehiago, baina egunen batean ideiak alde egiten badie, marra hutsak geratuko dira eta ez dute ezer esan nahiko.

Amaia amorratuta zegoen, eta amorratuta zegoenean beti egiten zuen bezala, aitonarengana jo zuen aholku eske. Aitona kulunkatzeko aulkian zegoen eserita, zerura begira edo. Hari ere ideia bat bururatuta, nonbait.

–Aitona, oso triste nago –esan zion Amaiak.

–Zer, bada? –galdetu zion aitona.

–Ideia bat izan dudalako.

–Ideia txarren bat? –galdetu zion aitona, kezkatu samar.

–Ez, oso ideia polita: pentsatu hutsarekin irribarrea etor tzen zaizu.

–Zergatik zaude triste, hortaz?

–Galtzeko beldurra dudalako.

–Galtzeko? –aitonari gauzak argi esanagatik, batzuetan ez baitzituen ulertzen, itxuraz.

–Bai, galtzeko. Orain beste zerbait bururatzen bazait, ahaztu egingo dut, eta berriro gogoratu nahi dudanean ez dut aurkituko, eta ezingo dut irribarre egin.

Aitonak burua astindu zuen.

–Amaia –esan zion–, badakizu zergatik ideiak ezin diren eskura eduki?

–Ez, aitona.

–Jendeak kaxa batean edo kutxa batean itxita gordeko li tuzkeelako bestela, zuk zure altxorrek gordetzen dituzun beza la, eta ez litzateke ideiarik geratuko hortik zehar, ez ideia po litak behintzat, irribarre eragiten duten horietakoak. Orain, berriz, ideiak inork ezin ditu harrapatuta eduki, eta hortik zehar hegan dabilta beti. Gaur zuri bururatzen zaizkizu, bi har beste bati, baina ezin dira preso eduki, ez dira inorenak zehazki, eta dendenenak balira bezala da, nolabait. Eta edo nori bururatu dakizkioke eta irribarrea eragin.

–Baina, aitona –esan zuen Amaiak–, nire ideia hau galtzen baldin badut, ez naiz pozik egongo lehen bezala.

–Bai, pozik egongo zara, ez duzu betirako galduko eta. Beste egunen batean berriro bururatuko zaizu, eta irribarre egingo duzu berriro, aspaldi ikusi gabeko lagun bat topatzea bezala izango daeta. Denbora pixka batean edukiko duzu, eta gero agurtu eta bere lekura itzuliko da berriro, jende guz tiaren artera.

Beste bana

Hasierahasieran gauza bakoitzetik bat baizik ez zegoen: txakur bakar bat, linterna bakar bat, asegurupoliza bakar bat. Aski zela zirudien, eta askoz merkeago, gainera: era horretan energia eta material berberarekin era gehiagotako gauzak egin zitezkeen, eta gauzamota gehiago, asmamen gehiago, aberas tasun gehiago izango zen munduan. Baina bazen arazotxo bat ere.

Poxpolo batek (zegoen poxpolo bakarrak, hain zuzen) piz tu zuen eztabaida:

–Poxpoloa naizela esan didate –kexatzen zen–, baina zer dakit nik zer den poxpoloa? Inoiz ez dut poxpolorik ikusi. Nire burua bai, ikusi dut, baina buruaren erdia eta atzeko al dea ez, eta ikusten dudan zatia neu naiz, gainera, ez poxpolo bat. Ni naiz sufrezati gorritzat hau, ni ziritxo arin hau, ni isla mehe hau; barruko aldetik sentitzen naiz beti, eta barruko al detik ez zara poxpolo bat, ez zara ezer, zeu zara, eta kito. Eta ez dakit zer arraio naizen, izan. Beste poxpolo bat beharko nuke, ni ez naizen poxpolo bat, eta orduan bai, hari begiratu eta esango nuke: “Begira, hauxe da poxpoloa eta hori bezala koxea naiz ni”.

Hasieran, baina hasierahasieran, poxpoloak baizik ez zuen egiten protesta. Geroztik, ordea, zabaldu egin zen, eta edozein kalekantoitan metronomoak eta gaueko guardiak, manometroak eta errementariak, gatzontziak eta igogailuak, kexa berberak errepikatzen zituzten denek.

Horregatik nagusiak iritziz aldatu behar izan zuen. Ustez ongi jokatu zuen energia eta material berberaz gauza mota asko eginda. Baina denak ari ziren kexu eta kexu. Ez zegoen beste erremediorik, beraz: gauza mota gutxiago, baina mota bakoitzetik beste bana egin. Ez zen erraza izan zein kendu eta zein utzi erabakitzea, eta oraintxe bertan ere ez dago batere garbi nagusiak ongi aukeratu ote zituen. Herensuge berde rik, esate baterako, ez dago (herensuge berdea, hobeto esate ko), berde hura guztia beste alkatxofa bat eta beste altzifre bat egiteko erabili behar izan baitzen, eta buru askotako hidrarik ere ez dago, buru haiek orangutanak eta nanoak egiteko be har baitziren, baina badira oraindik hidraren eta herensugea ren mira dutenak, eta pozik emango lituzketenak orangutan, nano eta alkatxofa guztiak, lokazti eta

zingiretatik hidrak eta herensugeak ateratzen ikusteko. Poxpoloa behintzat gustura geratu zen, zer zen ikasi zuen eta ez zen gehiago liskarraren sua pizten aritu.

Harrezkero, denetik dago beste bana, eta kito arazoa. De na konpondu da; ia dena, hobeto esanda. Zeren handik gutxi ra nagusia bera hasi baitzen kezkatzen, bera baizik ez baitzen geratzen bakarra. Baina ez zegoen zer eginik: nagusi bi izatea ezinezkoa da.

Beldurra zuen mutikoa

Behin batean bazen gauza guztiek beldurra ematen zioten mutiko bat. Etxekonekoen txakurra bazkalondoko siestatik esnatzean ahozabalka hasten baldin bazen, mutikoak lasterka ihes egiten zuen (txakur gaixoa zur eta lur utzita). Norbaitek eskua luzatu eta laztanen bat egin nahi bazion, ikaratu eta atzera egiten zuen. Etxean ezezagunen bat sartzen baldin ba zen, korrika batean joaten zen bere gelara eta ohepean ezkuta tzen zen. Eta inoiz etxeak berak ere, edo gelak, izutzen zuen, eta orduan handik ere ihes egiten zuen, lorategian babesten zen eta izuaren izuz begiratzen zuen ingurura, norantz jo ezin asmatuta.

Garai hartantxe, leku hartan bertan, bazen itxuraz ezeren beldurrik ez zuen gizon bat. Gerra eta zoritzarreko gertae ra guztiak ikusia zen, mila hondamen gainditua, basamortu erreak igaroa, zerurainoko mendietara igoa, itsasoaren hon doraino eta lurraren erraietaraino jaitsia, eta inoiz ez zuen ezerk izutu. Behin, itxuraz ezeren beldurrik ez zuen gizon hark dendanak izutzen zuen mutikoaren berri izanik, hari laguntzea erabaki zuen. Haren etxera joan, haren gelan sartu, lasailasai eseri eta hala, mutikoa ikusi gabe, ohepean bilatu gabe, hitz egiten hasi zitzaion.

–Hor, hagoen leku horretan, beldurra joan zaik? –galdetu zion.

–Ez –erantzun zion mutikoak–, oraindik badut beldurra.

–Eta badakik zergatik? –esan zion gizonak–. Beldurtzen hauena beti heurekin daramaalako, heure barruan dualako.

–Eta zer da? –galdetu zion mutikoak.

–Ez zakiat –erantzun zion gizonak–, inork ez zakik. Jaki nez gero, ez liake beldurrik emango. Baina bazakiat ez duela merezi ihes egiterik; bazakiat beldurra ez diadala nik ematen, ez txakurrak, ez eskua luzatzen dian jendeak.

Orduko hartan ez zen ezer gertatu. Gizonak alde egin zu en, baina mutikoak ohepean jarraitu zuen. Lehenengo aldi inoiz ez da ezer gertatzen; bigarreanean ere ez. Baina poliki poliki zerbait aldatzen hasi zen. Beste batzuetan ere gertatu zen gelak mutikoa izutzea, gaua etorri

eta hormetan itzal bitxiak marrazten zirenean; oraindik ere ihes egin zuen lorategira eta begiratu zuen ingurura, nora jo ezin asmatuta. Baina gerta tu zitzaion gizonak esandakoak gogoratzea ere, eta ihesi alde egitea alferrik zela iruditzea, eta orduan berdin zion barru ra itzultzea ere. Egunak eta egunak joan ziren; eta mutikoak adiadi begiratzen zuen ispiluan, beldurra zeri zion asmatu ezinik, eta ahoa ahal zuen guztia zabaltzen zuen gauza txarren bat irentsi zuelako ote zen ikusi nahiz. Baina ez zuen ezer aur kitu, jakina: aurkitu izan balu ez ziokeen beldurrik emango. Baina beldurra zuen, hala ere; une batetik aurrera, ordea, ez zion axola.

Igande goiz batean etxetik atera eta etxekonekoaren txakurrari laztan bat egin zion; txakurra txundituta geratu zen. Harrezkero inork ez du ikusi mutikoa. Zenbaitek esa ten dutenez, basamortu erreetan eta zerurainoko mendietan galduta omen dabil, eta itsasoaren hondoraino eta lurraren erraietaraino ere jaitsi omen da.

Liburua

Behin batean bazen liburu bat inork irakurtzerik nahi ez zuena. Jakinduria handiko hitzez eta esaera zorrotzez betetako liburu bat zen, baina oso zaila zen ulertzeko. Hura ulertzeko, liburua bera bezain jakintsua eta zorrotza izan behar zenuen, liburu asko irakurria, hitzaldi asko entzuna, eta argia eta ilu na bereizten ikasia behar zenuen izan. Hain jakintsua, hain irakurria eta hainbeste hitzaldi entzuna ez bazinen, mentura ra irakurriko zenituen haren orrialdeak; hemendik esaldi bat, handik hitz bat jasoko zenuen, zerbait gogoratzen zizutelako, baina oker egongo zen gogoratzen zizuna: ez zen izango liburuak esan nahi zuena. Eta liburua mindu egingo zen: gauza tristea da norbaitek hartu eta arreta gabe irakurtzea eta gaizki ulertzea. Horregatik, beraz, ezin ulertuzko orrialdetan, para grafo ilunetan eta aipamen kodetuen atzean gordetzen zituen bere jakinduriatzko hitzak eta esaera zorrotzak. Inork ez zuen hura irakurtzeko gogorik izaten, eta apalean abandonatuta ze goen; bakarbakarririk zegoen, baina ez zuen sufritzen behin tzat.

Baina denbora aurrera zihoan, eta iritsi zen jendeak gai nerako liburu guztiak erabat irakurri eta erabat ulertu zituen egun bat, eta norbaitek inork irakurtzerik nahi ez zuen liburu hura hartu zuen. Irakurlea ez zen oso gizon jakintsua eta zorrotza. Lehenengo hiru orrialdeak ahozabalka irakurri zituen: baina laugarren orrialdean zerbaitek arreta deitu zion; glizina zuhaitz bat aipatzen zuen. Zentzu metaforikoan aipatzen zuen, jakina, sinekdokez edo katakresi bidez, ez zegoen seguru: ezkutuko aipamena bikaintasunaren esperientziari buruz zen, helburuen erreinura asintotikoki hurbiltzen den zentzuan. Gizon hark ordea, ez zuen bikaintasunaren, asintotaren eta katakresiaren berririk: etxean, txikitan, glizina zuhaitz sendo, harro bat bazutelako, eta urtero gogotik inausi eta urtero are indartsuago eta urrintsuago berpizten zelako gogoratu zen. eta, hala, luma bat hartu eta bere historia kontatzen hasi zen: txikia zenean munduak glizinausaina zueneko.

Orain bada beste liburu bat inork irakurtzerik nahi ez zuen beste liburu haren ondoan, eta elkarri lagun egiten diote. Zentzu batean, oso zentzu zabalean, gauza berari buruz dihar dute biek. Inork irakurtzerik nahi ez zuen liburua inork ez du ulertzen oraindik ere: ez dago hura irakurtzeko bezain jakin tsua eta zorrotza den edo argia eta iluna ikusi dituen inor. Bai na konpainia apur bat izatea hari ere gustatzen zaio pixka bat.

Isiltasuna

Garai batean orain ez bezalakoak ziren gizakiak. Askoz ere ikusmen zorrotzagoa zuten, entzumena ere guztiz fina, eta usainik finen eta arinenak ere ez zien ihes egiten. Egia esateko, ezerk ez zien ihes egiten: dendena atzematen zuten. Olatuak uharrien kontra hausten zirenean, argi eta garbi be reizten zuten tantarik txikienaren hotsa ere; udako gauetan kilkerak kirrinka hasten zirenean, batere kostara gabe bereizten zuten haien hegoen igurtzia. Ez zieten begia kentzen beti ze latan dauden germen gaiztoei, eta azukea kafean nola urtzen zen entzuten jostatzen ziren. Dohain horiek ez ziren muga tzen hurbileko gauzetara; bailara barrenbarreneko zuhaitzak zenbatzen edo itsasoaz bestaldeko kanpandorreetako kanpai en hotsa entzuten ere trebeak ziren. Harik eta behin, giza ki haietako bat, bide horretatik ezer onik ez zetorrela ohartu zen arte. Distrazio gehiegi zegoen, gauza gehiegi beti kontuan hartzeko; ez zegoen inoren solasari adi egoterik, inguruan hiz ketan ari zen beste edonoren hitzen oihartzuna entzun gabe. Sekulako nahasmentua zen, beraz, eta horrela ez zegoen lan egiterik.

Aurkikuntza horrekin, besteak ere txundituta geratu ziren eta zerbait egin behar zela erabaki zuten. Betaurreko beltzak jarri zituzten, belarrietan argizaria sartu zuten, eta arropa zin tzilikatzeko gantxo batez itxi zuten sudurra. Azkenean gan txoak, argizaria eta betaurrekoak kendu zituztenean, itsu eta gor samarrak zeuden, orain bezalatsu, baina ez zuten garai bateko nahasmendu hura. Batzutan isiltasuna ere bazela iru ditzen zitzairen.

Beste neska

Irati nora joan, han izaten zen beti beste neska hura ere. Batzuetan kosta egiten zitzaion aurkitzea, lekurik bitxienetan ezkututzen zeneta: barrinoibarrenean, Irati bere eskutxoez uretan txiplitxapla aritzen zenean, leihoko beiran, gaua etorri eta kanpoan pauso batera ere ikusten ez zenean, ardoboti lan edo zilarra iruditzeraino garbitutako lapikoan. Baina ar mairuetan agertzen zen batez ere beste neska hura: ama gela handian ohea egiten ari zenean, Irati neska haren bila joaten zen, eta beti aurkitzen zuen, armairuek barruan zer dagoen ikusteko duten zulo handi horretan. Ikusi bai, baina ukitu ez, amak esaten zuen bezala, hari heltzeko modurik ez baitzego en, behin besterik ez bazen ere elkarri besarkada bat ematen biak ala biak gogotik ahalegindu arren.

Ukitu ezin bazuen ere, ordea, ongi ezagutzen zuen Iratik. Ezagutzen zituen haren begi urdinak eta haren kopetako ile gaztaina kolorekoa, haren lauzpabost hortzak, haren ibilera zalantzatia eta haren jakinminezko begirada. Eta bazekien atsegina nola eman ere: elkar ikusten zutenean irribarre egi ten zion, eta besteak berdin erantzuten zion, berriro ikusteak poztu egiten zuelako. Irati aldian behin petraldu eta negar egiten zuen; horrelakoetan amak armairura eramaten zuen, laguna ikustera. Hasieran laguntxoak ere negar egiten zuen, baina Irati sosegatu bezain laster, hura ere sosegatu egiten zen. Oraindik zotin pixka bat egiten zuten biek, baina gero joan egiten zitzaien eta barrez hasten ziren.

Beste neskatxoak ere bazituen bere ama eta aita, eta, bai gauza bitxia, Iratiren amaren eta aitaren antz handia zuten, eta haien gauza berak egiten zituzten beti. Iratiren ama gela handian ohea egiten ari zenean, beste neskatxoaren ama ere bere ohea egiten aritzen zen armairu barruko gela handian; Iratiren aita gorbata janzten ari zenean, beste neskatxoaren aita ere gorbata janzten aritzen zen. Horrela bada, Iratik ez zuen biratu beharrik izaten amak ohea egitea bukatu zuen jakiteko: aski izaten zen armairu barrura begiratu eta beste amak buka tu zuen ikustea. Eta bere ziba aurkitzen ez zuenean, armairu an begiratu eta beste neskatxoaren ziba non zegoen begiratzen zuen: nahita egina zirudien, bere ziba ere hantxe egoten zen.

Polikipoliki, hala ere, Irati pentsatzen hasi zen beste neskatxo hura beharbada ez zela bere laguna bakarrik izango, amak jarria izango zela, beharbada, berari laguntzeko. Armairu barruko

ama bere ama berbera izango zela beharbada (hain antzekoak ziren!). Armairu barruan zeuden gauzak kanpoan zeuden berberak zirela, beharbada.

Amaierarik gabeko istorioa

Behin batean bazen nola bukatu ez zekien istorio bat. Las tima zen, zeren oso istorio polita baitzen eta gustura entzu ten zen. Istorio hartako heroiak oso pertsonaia maitagarriak, kezka gabeak eta atseginak ziren; pertsonaia gaiztoak, berriz, ilunak eta harrigarriak; eta gertakizunen haria, ustekabez eta bihurgunez betea. Baina biribildu gabe zegoen, ez zen ikusten nora zihoan, ez zen burutzen. Pixka baten buruan istorioa agortu egiten zen, ifarra galdu izan balu bezala; horretaraino ez dago ezer txarrik, istorioak ere nekatzen baitira eta atsedena behar izaten baitute: liburu bat osatu behar da eta, orduan, ikusiak ikusi. Baina bukaeran ikasteko zerbait izan behar du te, halako lezio lauso bat izan, bide seguru bat erakutsi, non dik jo izateko. Gure istorioak, ordea, ez zuen horrelakorik: ezta jakinduria pixka bat ere, zentzuzko gauzarik batere ez. Eta liburu batean ez da sartu behar horrelako gauzarik. Istorio batek garrantzizko gauzaren bat irakasten ez badu, sertarako sartu liburu batean? Eta istorio bati gerta dakioken gauzarik makurrena gertatzen da orduan: jendeak ahaztu egiten du.

Gure istorioak sekulako beldurra zuen jendeak ahaztuko ez ote zuen. Egun batean, ordea, ia indarririk geratzen ez zitzaie onean eta etsietsita zegoenean...